



**2 UR  
0 TE  
2 KA  
1 RIA**



 **EROSKI**  
zurekin

Hemengo izatea ona da  
Es bueno que sea de aquí

**Tokiko 500 ekoizle baino gehiagorekin lan egiten dugu hemengo 2.500 produktutik gora eskaini ahal izateko**

**10** kon  
pro  
mi  
so  
osasungarriak  
jasangarriak

Ziurtagiria dugu gure denda guztietan



Info gehiago: [www.eroski.es](http://www.eroski.es)



## 20 urte. Biba zuek!

2021eko azaroaren 9an ANBOTOk 20 urte egin zituen. Urteurrena baliatuz, gure komunitate osoa zoriontzeko ale berezia kaleratu genuen. Izan ere, hamarkada bitan komunikazio proiektu hau dagoen lekura heldu bada, komunitate horri eskerrak izan da. Irakurleak, iragarleak, babesleak, kolaboratzaileak, eragileak, elkarleak... Ale horretan zein bestelako ekimenetan parte hartzeko gonbita egin diegun guztiek besoak zabalik hartu gaituzte. Biba zuek!

Zero kilometroa inoiz baino gehiago entzuten gabiltzan sasoi honetan, komunikazioan ere kontzeptu horren garrantzia azpimarratu gura genuke. Gertuko informazioaren lanketa komunitate ikuspuntuagaz lantzeak pandemian izan duen erantzuna ezin hobea izan da. Inguruan gertatzen zebile-nari buruzko informazio fidagarria tokiko euskarazko hedabideetan bilatu dute herritarrek. Gure audientzietan igarri da erantzuna. Egun batzuetan webguneko datuak bikoiztu egin dira. Eskerririk asko zuen konfiantzagaitik.

Komunikazioaren munduan aldaketak ziztu bizian gertatzen ari dira. Sare sozialak, mugikorren erabilera... Irakurleen kontsumo ohiturak aldatu egin dira. Ildo horretan, ANBOTO ere sasoi berrietara egokitzen dabil, Tokikomegaz elkarlanean. Etorriko diren olatuak ere hartuko ditugu!

Bestalde, 2021ean kaleratu ditugun albisteen laburpena duzue urtekari honetan. COVID19-aren inguruko albisteez gainera, Durangaldean gertatu direnak hementxe dituzue. Besterik barik, ANBOTOk lantalde osoak urte berri osasuntsua izatea opa dizue.

*Anbotoko lantaldea*

**anboto** 

946 816 558 · [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)

### AURKIBIDEA

04 URTARRILA

08 OTSAILA

12 MARTXOA

16 APIRILA

20 MAIATZA

24 EKAINA

28 UZTAILA

32 ABUZTUA

34 IRAILA

38 URRIA

42 AZAROA

45 ABENDUA

## Anbotoren lagunak Lekuan lekuko lagunak

[lagunak@anboto.org](mailto:lagunak@anboto.org) · Tel.: 946 816 558

 Anboto komunikabideak

 @anboto

 @anbotokomunikabideak

Anboto lagun zarena  
babesle hurrekoena  
jaso ezazu guztion partez  
gure esker beroena

Gure parte sentitzeko  
proiektua babesteko  
anboto lagun bihurtu  
zaitez euskara  
munduratzeko





## Korrontearen aurka, ekintzailletza pandemian

Erreportajea - DURANGALDEA

> **EKONOMIA.** Pandemiak dena irauli duen sasoi ezegonkor batean, Durangaldean hainbat lagunek negozio berria zabaltzea erabaki dute. Batzuek negozioa pandemia heldu aurretik zabaltzea zuten planifikatuta; beste batzuek, ostera, aukera ikusi dute krisian. Oztopoz beteriko bidea dutenez, askok bidelagunak ere topatu dituzte. Dena dela, enpresa berriak zabaltzea badira ere, beste batzuek atek zarratu behar izan dituzte. Askok izan dira koronabirusaren bidezidorretan ziztatu gaituzten arantzak, eta gutxiago izan dira, beharbada, usaindu ahal izan ditugun loreak. Baina lore horietariko batzuen esperientziak jaso genituen urte hasieran.



## Iaztik, Texasen (AEB) da Jon Muñoz

Kirola - DURANGO

> **FUTBOLA.** Jon Muñoz futbol entrenatzaile durangarra Bartzelona Futbol Klubak Texasko Austin hirian (AEB) duen futbol akademian entrenatzaile lanetan dabil 2020ko abendutik. Harrobiko lanak eraman du nazioartera. Aurretik, hiru urtean Kunming hiriko (Txina) Lama akademian ibili zen. Muñozen berbetan, Txinan "asteburuetak denborapasa" lez hartzen dute futbola. AEBetan, ostera, "urrutira heltzeko ilusioa" erakusten dute. "Futbola txoko bat egiten dabil haien artean", adierazi zuen.



## 780 euro batu dituzte Garaiko errematan

Herririk herri - GARAI

> **ERREMATA.** Urtero lez, San Anton eguneko enkante tradizionala egin zuten Garain. Garaitar mordoxka bat batu zen bertan, eta 2020an baino diru apur bat gutxiago batu arren (800 euro batu zituzten 2020an), bertaratu zirenek giro itzela bizi izan zuten; baserriko produktuak eskuratzeko lehia izaten da garrantzitsua. "Jenero ona dagoenez gero, jendea ekin eta ekin aritzen da lehian, azken momentura arte", azaldu zuen Mari Tere Ortuzarrek. Baturiko diruaren zati bat Caritasi eman zioten.

## Beitia, txertoa hegazkinez garraiatzen

Herririk herri - ELORRIO

> **OSASUNA.** Rafa Beitia hegaldi komertzialetako pilotua da. Aurten, baina, material berezi bat garraiatzen igaro du hainbat aste: koronabirusari aurre egiteko txertoa, hain zuzen ere. Elkarrizketa egiterako momentuan, Beitia AEBetan zegoen, Washingtonen; birusak gogor kolpatu zuen inguru hori. "Sekula ere ez dut horrelakorik ezagutu; egoera la-tza da", adierazi zuen.







**'Tinder' belaunaldia, ligatzeko aro berria**

**Herririk herri** - DURANGALDEA

> **HARREMANAK.** Lehenago erromerietan, gero diskotekan, eta orain Interneteko sare sozialetan. Telefono mugikorraren bitartez ligatzeko joe-

ra geroago eta zabalduago dagoela dirudi, eta askok aplikazio hauetara jotzen du hitzorduak bilatu guran. Baina aplikazioek ate asko zabaldu arren, tentuz erabili beharrekoak ere badira. Aplikazio horiei buruz eta horien erabileraz berba egin genuen urtarrilean egindako erreportajearen.

**"Izaera handiko" 73.000 litro sagardo**

**Herririk herri** - ZORNOTZA

> **SAGARDOA.** Bizkaiko sagardogileek Zornotzako Uxarte sagardotegian zabaldu zuten denboraldia.

Juan Zuriarrain enologoak berba hauekin deskribatu zuen Bizkaiko sagardoa Zornotzan eginiko irekiera ekitaldian: "Gorputz handikoa, kolore bizikoa, mingotsa eta eboluziorako gaitasuna duena". Garai "korapilotsuan", sagardoa kontsumitzera deitu zituzten herritarrak, etxean zein sagardotegian.



**Aspaldiko elurterik handienak Durangaldea zuritu du**

**Herririk herri** - DURANGALDEA

> **ELURTEA.** Denboraleak aspaldiko elurterik handiena ekarri zuen Durangaldeko mendietara 2021eko urta-

rrilean. Elur malutek ez zuten kalea apenas ikutu, baina mendian barra-barra bota zuen eta askok jo zuten hara dibertsio bila. Elurrak zailtasunak ere eragin zituen han-hemenka, baina ez elurrak bakarrik, baita txarto apartatutako kotxeek ere. Otxandion eta Urkiolan, esate baterako, baina beste leku batzuetan ere bai.





jtu

Jesuitak

Durango

zatoz gu ezagutzera

94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org

www.informazaitzez.eus





## Karmele Gisasolak emakumezkoen lehenengo pentatloi txapelketa irabazi du

**Kirola** - MALLABIA

> **HERRI KIROLAK.** Kirolari dago-kionez, 2021a urte borobila izan da Karmele Gisasola 'Zelai III.a'-rentzat. Ekainean emakumezkoen banakako pentatloia jokatu zen Azpeitian (Gipuzkoa), eta mallabitarra nagusi izan zen bertan; Lucia Orberen eta Garazi

Arrutiren aurretik geratu zen Gisasola, eta proba osoan zehar aurretik ibili arren, amaiera aldera apur bat gehiago estutu behar izan zuen.

Emakumezkoen banakako pentatloia ez da, baina, Zelai III.ak irabazi duen lehia bakarra. Urtarrilean, Euskadiko ingude-jasotze txapelketa ere irabazi zuen.

Herri kirolean egiten dabilen ibilbideagaitik, Mallabiko Udalak eta mallabitarrek omendu egin zuten Zelai III.a, martxoaren 8an. "Ez dut uste oraindino lorpen ikaragarriak izan dudarik, baina aurrerapauso txikiak egin ditudan sentsazioa dut, eta pauso txiki horiek emanda horrelako aitor-tza bat jasotzea eskertzeko modukoa

da. Oso esker oneko nago. Emakume falta dela-eta, zailtasunak daude txapelketa batzuk aurrera ateratzeko, eta, beraz, arlo honetan lanean jarraitu behar dugu", aipatu zuen. Herri kirolean tradizio handia duen familiakoa da.

Aizkoran hasi eta urtebetara, Gisasola Sherpa Ai. Txapelketa Nagusiko garailea izan zen, emakumezkoen lehenengo txapelketa. Bilbao Arenan lehiatu zen finala, azaroan. Gisasolak 11 minutu eta 48 segundo behar izan zituen lanak amaitzeko. Uxue Ansorregik (13.02) eta Maika Ariztegik (15.25) osatu zuten podiuma.



## Eubako frontoiko zoladura konpondu dute

**Herririk herri** - ZORNOTZA

> **LANAK.** Hobekuntza lanek 13.158,75 euroko aurrekontua izan dute. Diru kopuru horregaz, Eubako frontoiko kontraktantxako zoladura egokitzeko eta konpontzeko lanak egin dituzte. Lanak egin diren bitartean, pilotalekua itxita egon da. Konponketak eguraldiak eragindako higaduren ondorioz egin behar izan dituzte, batez ere,

## Vakasa, enpresa proiektuen irabazle

**Herririk herri** - IURRETA

> **EKINTZAILETASUNA.** Iurretako Vakasa mertzeriako Mari Carmen Ordoñez Delgadok 6.000 euroko saria jaso zuen Iurretako XII. Enpresa Lehiaketa irabazita. Mertzeria gaiak eta haurtxoentzako arropak saltzen dituzte Vakasa mertzerian. Josteta lanak eta

arropen konponketak ere egiten dituzte. Enpresa proiektuen lehiaketak ekimen ekintzaileak bultzatzea du helburu, eta Iurretako herrigunean enpresa propioa sortuz lanean hastea erabakitzen dutenei bidea erraztea. Iurretako Udalak "espíritu ekintzailea" sustatu gura du lehiaketa honen bitartez, "Iurretaren etorkizun komertzialari dagokionez inguruan bertan garatu daitezkeen ideiak oinarritzeko aukera egon dadin".



## 2026ra arte Errekatxoren esku

**Herririk herri** - ABADIÑO

> **AUZOAK.** Mendiolako eskola zahararen kudeaketak 2026ra arte Errekatxoren esku jarraitzea erabaki du Abadiñoko udalbatzak. EH Bilduren aldeko botoekin onartu zuten mozioa; EAJk aurka bozkatu zuen. AI, ostera, abstenitu egin zen. Errekatxok "erakina eta ingurua ondo zaindu izana" nabarmendu zuten.





### Txakurrentzako zazpi gune berri Durangon

**Herririk herri** - DURANGO

> **ANIMALIAK.** Durangoko Udalak txakurgune berriak atondu ditu Faustebekoan, Astolabidean, Zuhatzolan, Tabiran, Zumarkalean, Ibaizabal parkean eta Anbrosio Meabe parkean. Ordenantzaren arabera, jabeek txakurrak kontrolatu beharko dituzte, eta haien kakak batu. Hesia gainera, iturriak eta paperontziak ipini dituzte.



### Leire Delgadok Leile proiektuari ekin dio

**Akuilua** - ABADIÑO

> **BITXIGINTZA.** Leire Delgado abadiñarrak Leile proiektua ipini du martxan. Berak sorturiko belarritako eta lepoakoak erakusten ditu Instagramen bitartez (@leile\_bitxiak), eta artisau azoketan ere parte hartu du. Abadiñarraren berbetan, geroago eta gehiago baloratzen dira eskuz egindako sortzaileen lanak, eta pozik dago orain artean izandako erantzunagaz.



### Zintzilik Emozioen Laborategia sortu dute

**Kirola** - ELORRIO

> **SLACKLINEA.** Xabier Amorrortu elorriarrak Zintzilik Emozioen Laborategia egitasmoa ipini zuen martxan Elorrion. Urtarrilean, Alluitz mendia- ren gailurreriako Infernu Zubi pasabidean aurrera eta atzera ibili zen soka gainean. Afizio eta esperientzia horiek eta gehiago konpartitzen dituzte Zintzilik Emozioen Laborategian. Amorrorturen esanetan, "ametsi tarte bat bilatzeko bitartekoa da Zintzilik".

### Laixiar irrati librea jaio da Abadetxean

**Herririk herri** - IURRETA

> **IRRATIGINTZA.** Abadetxeak atek zabaldu ondoren piztutako ilusioak bultzatuta, Iurretako hainbat gaztek Laixiar irrati librea ipini dute martxan. "Ondo pasatzea dugu helburu. Umoretik abiatuta, gure intereseko kontuak landu gura ditugu", azaldu zuten. Azaroaren 6an, Arrosa Sarearen IX. Topaketetako anfitrioi lanak ere egin zituzten.



### "Ogia egitea erraza da; ona egitea da gatxa"

**Akuilua** - DURANGO

> **OGIA.** Rosi Navarro Catalan Durangoko Lehendakari Agirre kaleko Berrria okindegiko lantaldeko kideetarikoa bat da. Aita eta aitita okinak zituen, eta, beraz, hirugarren belaunaldia da okinen familian. "Okindegian hazitakoa naiz eta asko ikusitakoa naiz. Jakin barik barneratu nuen ofizioa, eta orain neuri jardutea tokatu zaidanean konturatu naiz horretaz", azaldu zuen Navarrok; ore amagaz egiten dituzte ogi eta opilak.

# ALKIMAX

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550  
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310  
alkimax@alkimax.net  
www.alkimax.net





## Río de Oro elkarteak Saharako errefuxiatuei laguntzeko kanpaina egin du Durangaldean

**Herririk Herri** - DURANGALDEA

> **ELKARTASUN KARABANA.** Otsailan Karabana Solidarioa martxan ipini zuten errefuxiatutako saharrei laguntzeko. Izurria dela-eta, 2021ean dirua batu zuten elikagaiak barik. Río de Oro aurreratu zuen diru guztia Tindufeko errefuxiatuentzat elikagaiak erosteko dela. Kanpai-

nak esangura handia izan zuen, gerra berpiztu zelako Fronte Polisarioaren eta Marokoren artean. Dohaintzak egiteko epea otsailaren 12ra arte egon zen zabalik. "Ezingo gara inguruko supermerkatuetara bertaratu, eta, horrenbestez, diru funtsak jasotzeko kanpaina bat martxan ipintzea otu

zaigu. Jasoriko funts guztiak (%100), jakina, jakiak erosteko eta Tindufeko errefuxiatu kanpalekuek bidaltzeko baliatuko dira", azaldu zuen elkarteak prentsa ohar baten bitartez. Bizum eta transferentzia bidez jaso zituzten ekarpenak.

Mendebaldeko Saharan hautsak harrotu ziren sasoi hartan. Fronte Polisarioaren eta Marokoren artean gerra piztu zen berriro, eta testuinguru horretan kanpainak esangura berezia hartu duela dio elkarteak. Río de Oro azaldu zuenez, "larriagotu" egin da lehenagotik ere larria zen egoera. "Hil edo biziko" kanpaina izan dela adierazi zuen.



## Haurreskoletako langileen protestak

**Herririk herri** - DURANGALDEA

> **HEZKUNTZA.** Haurreskoletako langileek protestekin hasi zuten urtea, Hezkuntza Sailaren "utzikeria" salatu eta aurrekontua handitzea eskatzeko. Sindikatu eta Hezkuntza Saileko ordezkariak negoziazio mahaia martxan ipini zuten hile batzuk geroago.



## Tabirakok EBA maila galdu du

**Kirolak** - DURANGO

> **SASKIBALOA.** Tabirako EBA mailan aritu da urte bian. Aitor Calle taldeko kapitainak eta Xabier Calle bere anaiak nabarmendu zuten talde durangarrak meritua duela maila horretan jokatu izanagaitik; etxeko jokalariekin baino ez dute jokutzen. "Sarturiko eta jasoriko puntuen artean dagoen aldea txikia da, eta partiduak detaileengaitik galdu ditugu", esan dute.

San Pio, 3  
ELORRIO  
Tel.: 946 582 261  
elorrrio@ikastola.eus

**ARDURAZ HEZI, NORTASUNEZ HAZI**

[www.elorrikoikastola.eus](http://www.elorrikoikastola.eus)

**Ateak zabalik dituzue, etorri eta ezagutu gaitzazue!**





### Transexualitateari buruzko legea, hemen

Herririk herri - DURANGO

> **TRANSEXUALITATEA.** Espainiako transexualitate lege berria eztabaidatu dute aurten Espainiako Kongresuan. Herritar transexualei eskubide eta aukera berriak eskaini gura dizkiete horrela, honegaz batera transexualitatea despatologizatzeko eta sufrimendua aurrezteko. ANBOTO Iraide Leginagaz (Zornotza, 1989) eta Eider Lauzirikagaz (Durango, 1997) batu zen, orduan lege proposamena zenaz gehiago jakiteko. "Beti esan izan dut 2007ko legea abiapuntu bat zela. Lege berri honek salto handia dakar. Beharbada ez du ezer behin betiko itxiko, baina orain hutsune handi batzuk betetzen badira, bada, modu horretan bidean aurrera egiten ariko gara. Pausoz pauso joatea ondo dago", adierazi zuen Leginak. Lege berriagaz transexualen kolektiboaz egindako "zor historikoari" erantzutea da helburuetariko bat. Iraide Legina eta Eider Lauzirika Durangaldeko Kili-Kili LGTB elkarteak dira.

### Turismo bulego berria estreinatu dute Elorri

Herririk herri - ELORRIO

> **TURISMOA.** Elorriko turismo bulego berriak Berrio-Otxoa kalean zabaltu zituen atea otsailan. Martitzenetik domekara hartzen ditu turistak zein herritarrek. Elorriok azken urteetan turismoaren aldeko apustu irmoa egin duela eta bulegoa horren oinarrietariko bat dela esan zuen alkateak. "Turismoaren arloan Elorrio aitzindaria izan zen bere sasoiari, eta orain ere lanean jarraitzen dugu arlo horretan. Esaterako, turismo plan estrategiko propioa egin dugu berri bultzatzeko", azaldu zuen Idoia Buruaga alkateak. Turismo bulego berriak hainbat zerbitzu eskaintzen du turismoa bultzatzeko: bisita gidatuak (Argiñetako bisita gidatua eta Alde Zaharrekoa), hamaika plazadun autokarabana gunea, audiogida zerbitzua (bisita gidatuak ez daudenean bezeroak aukera izateko audiogidak erabiltzeko), Naturbide sarea, Gurutzeen ibilbidea, herriko eliza biak bisitatzeko aukera...



### Areitioko Kirol Hiria aurkeztu diete mallabitarrei

Kirola - MALLABIA

> **FUTBOLA.** Eibar Klubak batzar informatiboak egin zituen mallabitarrekin, bertan egitekoak diren Kirol Hiri proiektua aurkezteko. Bertan, trafikoari eta inpaktu ekonomikoari buruzkoak izan ziren galderarik gehienak. Azpiegitura berriari tokia egiteko, aldaketa bat egin behar da Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean, eta horregaitik "beste urtebete edo gehitxoago" itxaron beharko da, gutxienez. Azpiegitura berriak 260 aparkaleku izango ditu eta Igor Agirre alkateak azaldu zuen Euskotrenezagaz berbetan dabiltzala Areitioko geralekua martxan ipintzeko.



ikastolenelkartea



www.ibaizabalikastola.eus



www.kurutziaikastola.eus

## Derrigorrezko Hezkuntza Batxilergoa Lanbide heziketa

- HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH
- BATXILERGOA
- HAUR HEZKUNTZAKO GOI TEKNIKARI TITULUA
- GAITASUN PROFESIONALAK:
- ARRETA SOZIOSANITARIOA, UR-SOROSLE...



## Lesioa atzean utzita, Irene Ogizak Athleticen lehenengo taldeagaz fitxa egitea lortu du



**Kirola** - DURANGO

> **FUTBOLA.** Irene Ogiza futbolarri durangarrari esne mamitan zegoela ailegatu zitzaion lesioa. Hala ere, ohikoa duen moduan, makurtu beharrean gogor lan eginez gainditu zuen lesioa. Jokalari durangarra pozik dago egiten dabilen denboraldiagaz. Besteak beste, gol bi sartu zituen otsailean, Espanyol taldearen aurkako partiduan. Hain zuzen ere, gola izaten da futbolarri batek jaso dezakeen konfiantza dosirik eraginkorrena. "Partiduak jokatzera edo entrenamenduetan, lesioa ahaztuta izaten dut. Ez dut beldurrik eta topean aritzen naiz. Baina partidu baten ondoren, nekatuta nagoen, zerbait igartzen dut, belauna apur bat minbera izaten dut", adierazi zuen. Baina ibilbidean izandako lesio larri biek irakaspen modura balio izan dietela nabarmendu zuen. "Lehenengo lesiotik nagusia go, eginago, eta mentalki askoz ere indartsuago irten nuen; bigarrenetik, motibatuago eta gauzak egiteko gogoz", gaineratu zuen.

2021ean, Espainiako 23 urtez azpiko selekzioaren deia jaso zuen.



## Hitz liburu dendak 45 urte egin ditu

**Herririk herri** - DURANGO

> **KULTURA.** Durangoko Hitz liburu dendak 1976ko otsailaren 3an zabaldu zituen ateak, San Blas egunez; aurretik, arte galeria izan zen. Nekane Bereziartua izan zen lehenengo liburu saltzailea bertan, Jesus Astigarragak eta Leopoldo Zugazak bultzaturiko proiektuan. 2011n Bereziartuak erretiroa hartu eta erreleboa hartu zuen Gaizka Olabarrik. Otsailean idatzitako iritzi artikuluan, Olabarrik eskerak eman gura izan zizkien hirurei —urteurrenaren bezperan hirurak handik igaro zirela ere aipatu zuen—, bezeroei eta lagunei. Urteurreneko beste momentu bitxiatariko bat Joseba Sarrionandiaren bisita ere izan zela nabarmendu zuen Olabarrik. Idazle iurretarra dendako bezeroatariko bat zela azpimarratu zuen, hain zuzen ere. "Sarrionandiari oraindino ere heltzen zaizkio liburuak Hitzeko apaletatik Kubara", idatzi zuen otsailean Olabarrik.

## Erreleboa mende Erdiko jardunaren ondoren

**Akuilua** - MAÑARIA

> **0 KILOMETROA.** Rafa Harategia — Bizkarra harategia izenagaz ezagunagoa— denda bat baino gehiago izan da Mañarian. Haragia ez ezik, bestelako produktu batzuk erosteko aukera ere eskaini izan du. 50 urtean Rafa Bizkarrak izan du negozioaren ardura; baina mende Erdiko jardunaren ondoren, erretiroa hartu eta lekukoa emateko

teko ordua ailegatu zaiola azaldu zuen otsailean. "Egia esan, pena ematen dit, baina deskantsatzeko gogoia ere badut", adierazi zuen. Hamalau urteagaz hasi zen lanean, aitari laguntzen, eta ordutik birritan baino ez ditu hartu oporrak: "Ezkonduta nintzenez hamabost egun, eta urrezko ezteiak egitean beste zortzi. Abuztuan ere zabalik eduki dugu, goizetan". Erreleboari inguruko abeltzainen okela eskaintzen jarraitzea gomendatu zion. "Abelburuak ondo jaten badu, okela ona izango da, ez dago beste sekreturik", nabarmendu zuen.





Leche

BIZKAIA

Esnea

*Baserría zure eskuetan*



[www.bizkaiaesnea.com](http://www.bizkaiaesnea.com)





### Olatz Salvadorrek 'Aho uhal' aurkeztu du

**Kultura** - DURANGALDEA

> **MUSIKA.** Olatz Salvador musikari donostiarrak *Aho Uhal* diskoa aurkeztu du Durangaldeko hainbat herritan: Mañarian, Abadiñon eta Elorrion. Osasun neurriek eragin arren, diskoari "fidel" mantentzen ahalegindu dira. "Ez da erraza konexio hori lehengo moduan sentitzea", adierazi zuen musikariak.

### Endika Zamalloa, Go!azenen protagonista

**Kultura** - DURANGO

> **TELEBISTA.** Urte zaila izan arren, Endika Zamalloa durangarrak ametsa betetzen jarraitu du. Go!azenez gazte fenomenoaren zarpigarren denboraldian parte hartu du. Aitor da telesailean. Endika Zamalloak antzerkian eman zituen lehenengo pausoak, Jose Martin Urrutia 'Txo-txe'-ren eskutik. Telebista saio arrakastatsuan parte hartzeaz gainera, Athletic Genuine taldeko kidea ere bada. Telebista ala antzerkigintza, bietako zein gurago duen galdetuta, erantzun argia eman zuen durangarrak: "Biak. Antzerkirako gehiago ikasi behar da. Kontzentratu, memorizatu eta gero dena bota. Telebistan beste modu batera lan egiten da; biak gustatzen zaizkit".



### Sergio Monederoren erakusketa Zornotzan

**Kirola** - ZORNOTZA

> **ERRUGBIA.** Sergio Monederok argazki erakusketa egin zuen Zornotzan. Errugbi munduko 130 kirolarigaz batu ostean ateratako argazkiek osatzen zuten erakusketa. Kirola bera baino,

kirolariaren atzean dagoena, "barruan gordetzen dutena" atera, eta argazkietan hori islatu gura zuen. "Niretzat oso interesgarria da jakitea pertsona batek zergaitik aukeratu duen kirol hori. Kirola egite soilagaitik den, lagun taldeak sortzen direlako den, estresa kentzeko formula den... Errugbiaren kasuan, filosofia batez atxikipen bat dutela ikusi dut", adierazi zuen Monederok.

### 'Salda badago'-n landurikoak, liburuan

**Herririk herri** - DURANGO

> **FEMINISMOA.** 2019ko azaroaren 1ean, 2an eta 3an Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak egin ziren Durangon. Orduko hartan eztabaidaturiko gaiak liburu batean batu dituzte; liburuaren aurkezpena ere Durangon egin zuten, San Agustin kulturgunean. Jardunaldietan landuriko "materialaren

analisi, proposamenak, mahai-inguruak, aktak eta herriko diagnosiak" jaso dituzte liburuan. "Kuantitatiboki 2.631 feministaren datuak daude. Talde elkarrizketak egin ditugu antolaketaren prozesua bizi izan zutenekin, azpiegitura taldekoekin, herri bakoitzeko feministekin", adierazi zuen Monica Mendiberri kideak. "Jardunaldietan parte hartu duten protagonista ororen bizipenak, emozioak eta tentsioak jasotzen dituzte liburuak, baita elementu ez hain erosoak ere", gaineratu zuen Mendiberri.



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

0-16 URTE "Txikiak handi egiteko hezkuntza osoa"



Larrea z/g - Amorebieta-Etxano - Tel.: 946 732 950  
zornotza@ikastola.eus - [www.andramarizornotzaikastola.eus](http://www.andramarizornotzaikastola.eus)





## 6.680 durangar trenbidearen proiektua geldiaraztearen alde agertu dira herri galdeketan

**Gizartea** - DURANGO

**> GALDEKETA.** Martxoaren 14an gertakari historikoa izan zen Durangon. Lehenengoz, herri galdeketa bat egin zen bertan, Erabaki plataformak bultzatuta. Herri kontsulta PERI1 Trenbidea proiektuaren ingurukoa izan zen eta, guztira, 7.077 herritarrek parte hartu zuten. Galdeketara deituriko herritarren laurdenak baino gehiagok eman zuten botoa. Horieta-tik 6.680k proiektua geldiaraztearen aldeko botoa eman zuten, %94k baino gehiagok. Erabaki plataformakoen esanetan, parte hartzeak "aurreikuspen guztiak" gainditu zituen.

Ima Garrastatxu Durangoko alkatearen berbetan, ekitaldia "historikoa" izan zen: "Argi geratu da du-

rangarrek ez dituztela 18 pisuko bost dorre gura". Gainera, gobernu taldearen —EH Bildu eta Herriaren Eskubidea— esanetan, parte hartzeak "aurreikuspenak gainditu" zituen. Julián Ríos alkateordearen esanetan, "aurrekari bat" ezarri zen eta "herritarrei parte hartzen utzi behar zaiela berretsi zen". EAJK, oster, "abstentzio handia" egon zela azpimarratu zuen. Alderdi jeltzalearen esanetan, galdeketak, planteatu zen moduan, ez zuen zentzurik eta "abstentzio handiak adierazten du durangarrek erakundeen artean adosturiko proiektu bideragarri bat gura dutela". Alderdi sozialistako kideek ere ildo beretik berba egin zuten. Jessica Ruiz PSE-EEren bozeramaileak

galdeketa "denbora eta dirua galtzea" izan zela adierazi zuen.

### Aurreakordioa adostuta

Durangoko Udalak eta Jaurlaritzak trenbide zaharraren orubean "proiektu bideragarri bat" egiteko aurreakordioa adostu zuten abenduan. Heren bat murriztuko dute eremuaren eraikigarritasuna. Alde biek elkarregaz definitu gura dituzte erakinen tipologia, kokapena eta altuera. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, uko egingo dio lurpeko merkataritza-galeriaren bigarren fasea eraikitzeari. Baita lurperatutako eremuan ekipamenduetarako gune bat eraikitzeo asmoei ere. Horri eskerrak "ahalik

eta berdegunerik gehien" sortzea gura dute alde biek. Durangoko Udalak, trukean, ekipamenduetarako lursail bat utziko dio Eguzkitzan, etorkizuneko industrialdea garatzen denerako. Era berean, San Agustin ospitalea eta Pinondo Etxea utziko dizkio Jaurlaritzari, honek premia-egoeran dauden kolektiboentzat bizitokiak eraiki ditzan. Bestalde alde biek adostu dute trenbide zaharraren trazadura osoa Durangoko Udalaren jabetzakoa izatea. Hori dela eta, udalak gune horiek urbanizatzeko aukera izango du. Alde biak bat etorri dira aurreakordioaren balioa azpimarratzerakoan. Alde batetik, libre geratu den eremuak urbanizatzeko proiektua udalaren "nahietara" aldatzeko, eta, bestetik, Jaurlaritzak herritarren borondateari erantzuteko asmoa agertu duelako, "egindako inbertsioaren ondoren herritarren ondare-eskubideak kaltetu ez dituelako".

## Lan egiteko modu berrietara egokitzen

**Herririk herri** - DURANGALDEA

**> COVID-19.** Martxoan urtebete inguru pasatu zen COVID-19aren izurria Euskal Herrira heldu zenetik. Egoerak ondorio zuzena izan du osasun langileen jardunean, eta zama fisiko eta psikologiko handia eragin zien. ANBOTOk eskualdeko hainbat osasun langilegatz berba egin zuen: Nerea Alza erizain laguntzailagaz, Mikel Gandarias medikuagaz eta Jone Izagirre eta Aran Agirre erizainekin. Osasun langileek ANBOTOri aitortu ziotenez, lan egiteko modu berrietara egokitu behar izan zuten.





## Morez bete dituzte Durangaldeko kaleak

Herririk herri - DURANGALDEA

> **MARTXOAK 8.** Beste urte batez, Durangaldeko emakumeek eskualdeko kaleak hartu zituzten martxoaren 8an. *Dena aldatu, sistema arrakalatu* lelopean, manifestazio jendetsuak egin zituzten Durangaldeko herririk gehienetan.

Mobilizazioetan, neurri bereziak bete behar izan ziren, osasun egoeragaitik. Durangon, adibidez, manifestarietako zutabetan banatuta joan behar izan zuten. 'Gora borroka feminista', 'Hau ez da gure bakea' eta 'Dena aldatu sistema arrakalatu' izan ziren gehien entzun ziren mezuak.

### Mugimendu feministak martxan

Martxoaren 8aren bueltan, Durangaldeko talde feministak lanean eta indarra hartzen jarraitzen dutela erakutsi zuten. Berrizen, esaterako, Azeri Gorriak-eko kideek *34 leiho* liburua kalera erakutsi zuten, erakusketa bat oinarri zuten liburua. Herriko 33 emakumeren bizipenak jaso eta hauen lana bistaratzea helburu duen lana da. "Emakumearen presentzia herrian zelan dagoen irudikatu gura genuen, ez bakarrik lan munduan. Emakume bakoitzak bere



bizitza du, gure borroka pertsonalak ditugu eta hori irudikatu eta kalera gura genuen", adierazi zuten Azeri Gorriak taldeko Andikona Ariztondo kideak. "Gainera, honegaz erakutsi

gura izan dugu denok izan gaitezkeela feminista, eguneroko ekintzetan feministak garela, bagarela, nahiz eta askotan kontzientzia izan ez", gehitu zuten Miriam Caro feministak.



## 'Zaldibartik mundura' dokumentala ikusgai

Gizartea - ZALDIBAR

> **DOKUMENTALA.** Ohiko kulturarteko jaialdiaren alternatiba lez, eta zaldibartarren artean ere arrazismo kasuak gertatzen direla salatuzko, Zaldibarko Jendeak elkarteak ikusentzunezko lana aurkeztu zuen. Dominikar Errepublikatik, Kolonbiatik, Errumaniatik, Sahararik eta Senegaldik ailegaturiko zaldibartarrek euren lekukotza eskaini dute *Zaldibartik mundura* dokumentalean. 35 minutuan zehar, sufrituriko zailtasunak eta desberdintasun egoerak aletzen dituzte.

Egin zaitez **Anbotoren Lagun,** eta atera etekina txartelari!

**ANBOTOREN LAGUNAK**

Lekuan, lekuko lagunak

\*Babestu proiektua urtean 30 euroren truke



## Karrika antzerki taldeak aro berri bati ekin dio 'Karrikan' lanagaz

Kultura - DURANGO

> **ANTZERKIA.** 2018ko otsailaren 4an hil zen Jose Martin Urrutia 'Txotxe', Karrikako *alma materra*. Harrezkerro, Karrikako kideak oholtzara igo barik egon dira, eta apirilaren 4an Topaklown jaialdiaren barruan berriro igo ziren. Bertan, iazko udaberrian estreinatzekoa zuten *Karrikan* antzezlana plazaratu zuten. "Asko kostatu zaigu hainbeste etenaldiren ostean berriro martxan hastea. Berreskuratze lan bat egin behar izan dugu, baina ez hori bakarrik; aurre-

lanketa handia egin behar izan dugu gozatze mailara heldu ahal izateko", azaldu zuen Uxuri Gallastegi antzezleak. Gallastegigaz batera, Maite Lopez, Naiara Lopez, Gorka Madrazo, Garazi Magunagoitia, Mikel Uribebarrea, Maialen Magunagoitia eta Eider Chavez igo ziren oholtzara. Hasieran, Endika Zamalloak ere parte hartu behar zuen antzezlanean.

*Karrikan* antzezlanean, zortzi lagun plaza batean ageri dira, kaxa bat buruan dutela. "Bakoitzari, norba-

nako lez, kutxa bat egokitu zaigu eta obra norberak kutxa horretan egokitze duen gogoari buruzko hausnarketa bat da", azaldu zuen Gorka Madrazok.

Horrez gainera, gaiari eusteko moduan ere aldaketa bat igarri dutela azaldu zuten Karrika antzerki taldeko kideek. "Beharrezkoa genuen geure artean jolasteko gogo hori berriro berreskuratzea, antzerkiaz gozatzeko gogoia edukitzea berriro", gehitu zuen Maite Lopezek.



### Aukera Azokak 10.000 bisitari izan ditu aurten

Herririk herri - DURANGO

> **KOMERTZIOA.** Dendak Bai Durangaldeko merkatari elkarteak Aukera Azoka egin zuen martxoan. Gutxi gorabehera, 10.000 bisitari joan ziren Aukera Azokara, eta hamazortzi establezimenduk parte hartu zuten. Landako Gunean, arropa, osagarriak edo zapatilak saltzen dituzten hamabost dendari eta jatekoa saltzeaz arduratzen diren beste hiru establezimendu izan ziren.

Bisitariei dagokienez, elkarteak esan zuen kopurua "ohikoa baino baxuagoa" izan zela, baina jaitsiera horren atzean mugikortasuna mugatzeko neurriak zeudela. "Indarrean dauden neurrien eraginez, Durangoko eta herri mugakideetako pertsonak baino ezin izan dira etorri Landako Gunera", azaldu zuten. Dena dela, "salbuespenak salbu", dendariak "ohiko" salmentei eutsi zieten. "Saltokien portzentaje altu bat pozik agertu da izandako salmentekin, hain arraroa izan den edizio honetan ipiniriko itzaropena bete egin delako", adierazi zuten Dendak Baiko kideek.



### "Egoera mingarri batetik dator liburua"

Kultura - ZORNOTZA

> **POESIA.** Jon Ander Urkiaga zornotzarrak 'Bizia min' poema liburua kaleratu zuen, Luces de Galibo argitaletxeagaz; ia 40 olerkik osatzen dute lana. "Bizia min berba joko bat da, hasieratik argi eduki dudana, liburu honen atzean minbizi kasu bat dagoelako", aitortu zuen zornotzarrak.

Urkiagaren poema liburuan mina da ardatza, baina irakurketa ez da mingarria, edo soilik mingarria

behintzat. "Egoera mingarri batetik sorturikoa da, baina, hortik aurrera, ariketa moduko bat da niretzat, eta, momentu batzuetan, jolas modura ere hartu izan dudana, barruan nituen zera horiek kanporatzeko. Prozesu guztia ez da mina edo iluna izan", aitortu zuen zornotzarrak.

Urkiagaren lana hiru zatitan banatuta dago: bata bisualagoa da; beste bat, abstraktoagoa; eta hirugarrena, ostera, herio kantak dira.

Liburu honeguz, Nafarroako Kutxako fundazioaren gazteentzako poesia lehiaketa irabazi zuen. Aurretik, 'Atea itxi aurretik' poema liburua argitaratu zuen, 2012an.





**Durango**

KABILDUOSTE

## DURANGO KABILDUOSTE

Proiektu berria San Roke auzoan,  
erdigunetik pauso batera.

Nuevo proyecto en el barrio San Roke,  
a un paso del centro.

Informazioa / Información

 **sukia**  
Zure etxean zaude **Estás en tu casa**

**946 46 20 41**  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)



## Lau hamarkadaren ondoren, Joseba Sarrionandia Durangaldera bueltatu da

Herririk herri - IURRETA

> **KULTURA.** 41 urteko erbestealdia- ren ondoren, Joseba Sarrionandia Iurretara bueltatu zen, apirilean. Diskrezioz bueltatu gura zuen, he- dabideetan eta halakoetan agertu barik. Baina albistea bolo-bolo za- baldu zen eta ANBOTOgaz batu zen. Sarrik ANBOTOri aitortu zionez, "herri diferentea" aurkitu zuen Durangaldera bueltatu zenean. Al- datuta ikusi zituen bere jaioterria eta eskualdea. "Herri diferentea da, plano baten bila nabil. Jendea ere oso diferentea, ikusten denez, baina ezin dut esplikazio berezirik eman. Gauza ezezagunak dira nire- zat", adierazi zuen.

Gainera, Iurreta desanexionatu batera bueltatu zen. "Iurreta Du- rango zen sasoiakoa naiz. Ez nuen Ertzaintza ezagutzen, ETB ere ez

dut sekula zuzenean ikusi, eta ha- rrituta nago hainbeste errotonda- gaz... Oso diferentea da dena. An- tzina, ehun urtean aldatzen ziren gauzak; gure belaunaldian, hamar urtean. Eta ea ikusten dugun dato- rrena, munduko bizimodua abiadu- ra handian doa eta", aitortu zuen.

Horrez gainera, herrira buelta- tuta hainbat jenderen falta sumatu zuela aitortu zuen idazle iurreta- rrak. "Aita ez dut aurkitu, orain ur- te batzuk hil zen, hogeita hamapiku urtean ikusi barik. Jende asko falta da, familiakoak, nire lagun batzuk heroinaren sasoiak desagertu ziren, beste batzuk istripuetan edo gaixo- rik. Denoi pasatzen zaigu. Denbo- rak pertsona asko jaten du. Apur bat arraroa da sobrebibiente sentsazio hau", amaitu zuen Sarrionandiak.



### Jolastokiaren Aldeko Batzordea, "haserre"

Herririk herri - ZALDIBAR

> **JOLASTOKIA.** Zaldibarko Jolastokia- ren Aldeko Batzordea kexu agertu zen eta elkarretaratzea egin zuen "udal gobernu taldearen jarrera salatzen". Izan ere, 2020ko ekainaren 25ean 1.033 sinadura aurkeztu zituzten udaletxean eskola pu- blikoko patioa eta inguruko belargunea atontzeko, eta 2021eko apirilean "azalpen baten zain" jarraitzen zutela kritikatu zuten. "Ia urtebete igaro da sinadura guz- tiak aurkeztu genituela. Zelan da posible hainbeste sinadura aurkeztuta ere gugaz hartu-emanetan ez ipintzea?", galdetu zu- ten batzordekoek.



### 'Natura bizia' dokumentalak Euskal Herriko biodibertsitatea berbegai

Kultura - DURANGO

> **DOKUMENTALGINTZA.** Apirilean, Natura Bizia dokumentala aurkeztu zu- ten zinema aretoetan. Durangoko Avis ekoiztetxeko Lexeia Larrañagak zuzen- du zuen dokumentala eta Alex Gutie- rrez arduratu zen ekoizpen lanez. Asier Bilbao ekoizle durangarrak ere parte hartu zuen dokumentalean. Julio Veiga arduratu zen musikaz. "Zinemarekiko, naturarekiko eta gure inguruneareki-

ko pasioagaitik egin dugu dokumental hau", adierazi zuten Avis ekoiztetxeko kideek.

Dokumentala dozenaka gunetan grabatu zuten, kostaldean zein barrual- dean: Deban eta Zumaian (Gipuzkoa) Flyschan, Urdaibain (Bizkaia), Arala- rren eta Bardeetan (Nafarroa), besteak beste. Durangaldean ere egin zituzten grabazioak, Urkiolako parke natura-

lean, esate baterako. "Itsaslabar malkar- tsuak, itsaso amaigabea, magiaz beteri- ko basoak, kareharrizko mendi altuak... guztiek bizipen ahaztezinak eskainiko dizkiote ikusleari. Munduko zetazeorik handien artean igeri egingo dugu, hartz arrearen lozorroaren ondorengo lehenengo pausoz disfrutatuko dugu eta mendietako hegaztirik ospetsuena den ugatzaren alboan hegaz egingo du- gu", azaldu zuten ekoiztetxeok.

*Natura bizia* dokumentalean, ikus- learentzat "bidaia" bat proposatzen dute egileek. "Oso gustuko dugu natura, eta lan honen bitartez Euskal Herriko al- txor naturalak gertutik erakutsi gura ditugu", gaineratu zuten.



## Otxandion egindako indusketetan ez dute hobi komunik aurkitu

Herririk herri - OTXANDIO

> **GIZARTEA.** Otxandioko kanposantuan prospekzioak egin zituzten, 1936ko bonbardaketan hildakoak han lurperatuta dauden jakiteko. Aranzadi elkarteak egindako ikerketa batean oinarritu ziren indusketa horiek egiteko. Hobi komun bat aurkitzea zen helburua, gorpu askoren hezurak toki jakin batean pilatuta eta nahastuta egon

ziren gune bat, hain zuzen ere. Horixe izango zen adierazlerik agerikoena hezurak bonbardaketan hildakoenak zirela baieztatzeko. Baina ez dute horrelakorik aurkitu. Indusketetan ez da hobi komunik agertu.

Horren orde, hobi indibidualak aurkitu dituzte. Hau da, banakakoak eta bata bestearen ondoan.




## Jesuiten Etxeak etapa berri bati ekin dio Durangon

Herririk herri - DURANGO

> **GIZARTEA.** 2020ko ekainean, Jesusen Lagundiak amaitutzat eman zuen Durangon zuen elkartearen ibilbidea, eta horregaz batera bertan behera geratu zen Jesuiten Etxea proiektua. Egitasmo horregaz, egoera zaurgarrian zeuden etorkinei gizarteratzen lagundu zien 13 urtean. Jesusen Lagundiaren ibilbidea amaitu arren, jesuitek adierazi zuten ez zutela alde batera utziko Durangon zuten obra, eta horrela gertatu da. Orain proiektu berri bat martxan dute Jesuiten Etxean.

Gauregun Jesusen Lagundia plataformaren barruan dagoen Ellacuria Fundazioetik kudeatzen dute Jesuiten Etxea eta sare zabal bat sortu dute euren inguruan, Lagundiaren barruko eragileekin zein erakunde publikoekin.

Proiektu berri honetan, 14tik 18 urtera arteko 16 gazte daude. Euren egoera erregularizatzeko prozesuan daude gehienak. Maroko, Aljeria, eta Magreb zonaldekoak dira. Beste jatorri batzuetakoak ere izan dituzte.



ZALDIBAR ELIZATEKO UDALA

Tel.: 946 827 016

www.zaldibar.eus



Zaldibar  
Elizateko Udala





## Etxe okupatu batetik irtenarazi dituzte Abadiñoeko Zelaieta auzoan

Herririk herri - ABADIÑO

> GIZARTEA. Apirilaren 15ean, Desokupa enpresako kideek Zelaieta auzoko Alfredo Baeschlin kaleko etxe okupatu batetik irtenarazi zituzten

bertako bizilagunak. Tentsio handiko uneak bizi izan ziren Desokupa enpresako kideen eta okupei babesagertzera joandako herritarren artean. Ertzaintzaren hiru furgoneta bertaratu ziren, eta borrekin kolpatu zituzten bertan baturikoak. Leku-koen esanetan, Desokupa enpresako "zortzi-hamar kide" joan ziren eraikina desokupatzera. Horren aurrean, Abadiñoeko dozenaka herritarrek protesta egin zuten.

Desalojoaren ondoren, Bilboko Okupazio Bulegoak salaketa ipini zuen Durangoko epaitean, desalojoa "legez kanpoko" izan zelakoan. "Etxean indarrez sartzeagaitik" eta "mehatxu egiteagaitik" salatu zuten Desokupa; eraikinaren jabea beste delitu bategaitik salatu zuten: "norbakoaren eskubidea modu arbitrarioan egikaritzeagaitik". "Kasu honetan, delitu larri bat egon daitekeela uste dugu. Jabe bati etxea okupatu badiote, badiu bere bideak horri aurre egiteko; salaketa ipini behar du epaitegian, edo polizia-etxean. Bide bi ditu: bide penal edo zigortzailea, eta bide zibila; jabe guztiek bata edo bestea aukeratu dezakete, baina ezin dituzte pertsona batzuk kontratatu inor botatzeko", adierazi zuen Iñaki Carro BOB elkarte abokatuak.



"Umeak dira eta marrazkiekin oso familiarizatuta daude"

Kultura - ZORNOTZA

> MARRAZKIGINTZA. Eider Eibar zornotzarrak saria jaso zuen *Ez dakit marrazten* liburuagaitik Juul literatura hauteskundeetan. Eibarrek jakinarazi zuenez, "umeak marraztera bultzatzeko" idatzi zuen liburua. "Tailerrak eskaintzen ditut eskola, udal liburutegi eta ludoteketan, eta beti dago umeren bat marrazten ez dakiela dioena saioa hasi eta lasterrera. Saioa amaitzen denean, ez du hori esaten. Egoten da baten bat trabatu egiten dena beharbada, edo marrazkiren bat irteten ez zaiona, baina guztiek marrazten dute. Azken finean, umeak dira eta marrazkiekin oso familiarizatuta daude", azaldu du.





### "Elkar zaintza da Ceiba elkartearen oinarria"

**Herririk herri** - DURANGO

> **GIZARTEA.** Estena Ada Nve Mokuy, Carolina Muana Remi eta Joita Isabel Bindang Aly Ceiba elkarteko hiru kide dira. Elkartea Ekuatore Gineako 15 emakume durangarrek osatzen dute eta elkarri laguntzeko sortu zen, baina durangar guztiei zabalduko beste hainbat egitasmo ere antolatzen dute. "Orain bost urte sortu genuen. Durangon Ekuatore Gineako herritar gutxi gaudenez, elkar zaintzeko eta elkarri laguntzeko helburuz sortu genuen elkartea. Horretarako eta Durangon antolatzen diren bestelako egitasmoetan parte hartzeko, herriko elkarteekin ere bagaudelako hartu-emanetan. Baina elkar zaintza da elkartearen oinarria", azaldu zuen Estena Ada Nve Mokuyk. Eurena babes sare bat dela azpimarratu zuten Ceiba elkarteko kideek, "elkarri laguntzeko sare bat".

### Martxanterak omendu dituzte Durangon

**Herririk herri** - DURANGO

> **GIZARTEA.** Durangoko Udalak martxanterak omendu zituen Andra Marian. Omenaldi hunkigarria izan zuten, Boni Macarrón martxanteraren horma irudia ipinita. 'Boni' herritarren irudimen kolektiboan iltzatuta geratzen diren pertsonetarikoa bat da. Macarrón Durangoko makina bat ume-ri gozokiak saltzen ibili zen urte luzez Andra Maria elizpean.

"Andra Mariko elizpeko martxanterak ikur izan dira eta izango dira durangar askorentzat, gure herriaren oroimen kolektiboaren parte baitira. Hori dela-eta, oso garrantzitsutzat jo genuen udalak bere irudiari balioa ematea", azaldu zuten gobernu talde-tik. "Niretzat martxanterak emakume langileen adibide izan dira beti", azaldu zuen ekitaldian Ima Garrastatxu alkateak. "Denok dakigu Bonik eta gainerako martxanterek gure bizitzetan suposatu zutena", azaldu zuen Julian Ríos alkateordeak umetako oroitzapenak gogora ekarrita. Macarronen horma irudia ipintzeko ekitaldian, durangarraren senitartekoak ere izan ziren.



**Herririk herri** - DURANGALDEA

> **KOMUNIKAZIOA.** Tokikomek, toki komunikabideen bateraguneak, urteko batzar orokorra egin zuen apirillean. 2020aren balorazioa egin zuten. 2021erako eta aurreragoko asmo eta helburuak ere izan zituzten berberak. Batzar hartan gauzatu zen presidente erreleboia ere. Izan ere, azken lau urteetan Tokikome-



### "Nekez ikusten dut toki hedabideok gauden tokian egotea Tokikom ez balego"

ko presidente izan den Jone Guenetxeak Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusi Iban Arantzabali pasatu zion lekukoa, eta honek "gogotsu" hartu zuen. "Animoagaz hartu beharrean zaudete kargua, eta halaxe egin dut. Momentu polita da: badago zeregina, eta ilusioz beterikoa ere bada momentua. Mundu aldakor honetan bagabiltza zelanbait posizionatzen, eta, alde horretatik, animoagaz eta gogotsu nago. Bestalde, administrazio kontseiluan gutariko edozein izan zitekeen presidentea, egia esan. Kargua hartzen dut administrazio kontseilua- ren eta batzar orokorraren ahobatezko- tasunagaz, eta hori garrantzitsua da", adierazi zuen Iban Arantzabalek.

Bestalde, toki komunikabideetan Tokikomek "bateratze bat" ekarri duela azpimarratu zuen Arantzabalek. "Tokikomek Euskal Herria marrazten du eta laguntzen du, erremintekin, datuen kudeaketagaz, informazioagaz... hainbat modutara. Gaur egun oso nekez ikusten dut toki hedabideok gauden tokian egotea Tokikom ez balego. Bakoitza bere aldetik joanda, bikoitza kostatuko litzaiguke. Debagoienan, Sorluzen, Beran, Zumaian, Durangon... edonon oinarri bat izateak asko laguntzen digu, eta hori Tokikomi eskerrak lortzen da", amaitu zuen Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusiak.

*Elorrio urtes osoko Turismoa*  
 Herriko Plaza, 48230 Elorrio (Bizkaia) · Tel.: 94 658 712  
[www.elorrioturismo.eus](http://www.elorrioturismo.eus)

**Elorrioko udala**



## Elorrioko Alde Zaharreko komertzioak erretiroaren edo erreleboaren atarian

Herririk herri - ELORRIO

**KOMERTZIOA.** Elorrioko Alde Zaharreko komertzioaren erradiografiak aldaketa edo eraberritze prozesu batean murgilduta dagoela azalerazten du, eta ANBOTOK diagnostiko horretan sakondu zuen maiatz hasierako erreportajearen. Komertzio batzuek atek itxi behar zituzten, arduradunak jubilatze-ko atarian zeudelako. Beste kasu batzuetan erreleboa bilatu eta aurrera jarraituko zuten, beste jende batez.

Errelebo horretan bultzada bat emateko asmoz, Elorrioko Udalak diru laguntzak eman zituen hutsik zeuden komertzioak berraktibatze-ko. 15.000 euro ipini zituen helburu horretarako. Laguntza hori modu positiboan baloratu zuen EMEk, Elorrioko Merkatarien Elkarteak, eta aholkularitza zerbitzua aktibatze-ko ere eskatu zuen.

Akebaso harategia da arduradunak jubilatuta osteko errelebo faltagaitik atek itxi dituen komertzio bat. "Alaba bi dauzkat eta argi esan zidaten ez zutela harategiagaz ezer jakiterik gura", azaldu zuen Kontxi Urizarbarrenak, harategia gidatu duen arduradunetarikoa batek.

Rosi Retozala eta Iratxe Unzueta, ostera, txanponaren beste aldean daude. Izeko-ilobak Gergue arrandegiaren kargu egin ziren martxoan. Hasieran harrera ona izaten ari zirela azaldu zuten eta itxaropentsu zeuden etorkizunera begira. "Elorrio herri txikitxo da eta, oraingoz behintzat, jende askok erosten du bertan. Gainera, uste dut oraindino jendeak garrantzia ematen diela denda txikitako kalitateari eta bertan ematen den arreta bereziari", azaldu zuen Unzuetak.



## "Marcelinok ausarta izateko eta aurkariaren bila joateko eskatzen dit"

Kirola - ZORNOTZA

**FUTBOLA.** Iazko futbol denboraldia berezia izan zen Jon Morcillorentzat, Athleticen lehenengo taldera saltoa eman zuelako. Marcelino García Toralek entrenatzaile kargua hartu zuenetik, protagonismo gehiago izaten hasi zen eta bere errendimenduak gora egin zuen. "Marcelinok ni neu izateko eskatzen dit; ausarta izateko, baloia hanketan dudan

nean aurkariaren bila joateko eta aukera dudanean atera jaurtitzeko", azaldu zuen hegaleko jokalaririk zornotzarrak. Ez zen edozelango denboraldia izan gainera, Athleticen Errege Kopako final bi jokatu zituelako. Final biak galdu izana "kolpe latza" izan zela onartu zuen, baina apurka-apurka taldeak egoerari buelta ematea lortu zuela.



atxondo





### Bizkargi kafetegia, proiektu sozial baten mesedetan

**Herririk herri** - ZORNOTZA

**> GIZARTEA.** Zornotzako Harrera Taldeari autofinanziaziorako bidea ematea da Bizkargi kafetegiaren helburua, eta urtebete inguru darama zabalik. Maiatzean, urte erdi zeramatela, kafetegian harrera ona izaten ari zirela azaldu zuen Harrera Taldeko Irati Aiestak eta euren proiektuaren helburuak gogoratu zituen. "Herritarrei aukerak eman gura dizkiegu lan mundura sartzeko. Bestetik, gizarte alternatiba bat eraiki gura badugu, horretarako baliabideak sortu behar dira uste dugu. Horregaitik, beharrezkoa da kontsumo bideak eraldatzea eta kontsumo eredu justuagoak eta gertukoagoak sustatzea", azaldu zuen Aiestak. Aniztasunean oinarrituriko gizarte irudikatzen dutela eta kafetegiak aniztasun hori islatuko duen lokal publiko baten "beharrizanari" erantzuten diola gaineratu zuen.

Kafetegitik ateratako diruagaz, beharrezkoak duten pertsonen laguntzen diete. "Kasu baterako, alokairua ordaindu ezinik dabiltzanei laguntzen diegu", esan zuen. Kafetegian bestelako produktuak ere saltzen dituzte eta gertuko ekoizleei haien produktuak saltzeko leiho bat zabaltzen diete. "Azken batean helburu sozialak dituen ekonomia bat sortzea da asmoa".



### Amorebieta Bigarren Mailara igo da, klubaren historian lehenengoz

**Kirola** - ZORNOTZA

**> FUTBOLA.** Amorebietak handia egin zuen maiatzean Bigarren Mailara igota. Normala den moduan, sufritzen dabil eta gorriak ikusiko ditu mailari eutsi gura badio, baina lorturikoa urrezko letrekin idatzita geratuko da klubaren historian betiko. Inork gutxi egingo zuen Amorebietaren aldeko apustua denboraldiaren hasieran, eta askok gehiagok ez igoera fasea hel-

du zenean ere. Ekonomikoki bera baino talde indartsuagok gainditu behar izan zituen ametsa errealitate bihurtzeko. Badajozen kontrako azken partidua da horren adibide. Extremadura-ko taldea faboritua zen eta 7.000 zaleren babesa izan zuen azken partiduan, baina Iker Bilbaoren gol batek pronostiko denak apurtu eta Amorebietari eman zion igoera.

Iñigo Velez de Mendizabal beti gogoratuko da Amorebieta Bigarren Mailara eraman zuen entrenatzaile modura. Igoeraren oihartzuna herritik kanpora heltzen dela azaldu zuen. "Amorebietaren lorpena Zornotzarentzat, Bizkaiarentzat eta Euskal Herriarentzat garrantzitsua dela ulertzen dut, baina talde umilen ikuspegitik ere oso inportantea dela deritzot. Dirua dena ez dela erakutsi dugulako. Lana eta ilusioa daude gure lorpenaren atzean. Horixe da futboletik gehien gustatzen zaidana. Meritua zelaian egin behar dela", azaldu zuen entrenatzaile gasteiztarak.



### Kutxa Birari harrera beroa Durangaldean

**Herririk herri** - DURANGALDEA

**> EUSKARA.** Pandemiaren sasoiaren euskalgintzak bizi zuen hutsunea betetzeko helburuz sortu zen Kutxa Bira. Euskarari eta euskal kulturari loturiko ekimen asko bertan behera geratu zenez, herriarentzat eta hizkuntzarentzat konpentsazio emozional bihurtu zen. Zur landuz egindako kaxa berezia herririk herri ibili zen, tartean Durangaldean. Durangon eta Elorrioren ekitaldiak egin zituzten Kutxa Birari ongiatorria emateko.



MALLABIKO UDALA

Tel.: 943 171 461

www.mallabia.eus







## Mendirako zaletasuna hazten doan neurrian, sai zuriek geroago eta kume gutxiago hazten dituzte

Erreportajea - DURANGALDEA

Urkiolako Parke Naturalean zortzi sai zuri bizi dira, lau bikote, eta euren egoeragaz "kezkatuta" agertzen Biologian doktorea den Iñigo Zuberogoitia. Mendira joateko zaletasuna hazi egin da pandemia garaian, jende gehiegi dabil mendiko ohiko bideetatik kanpora, sarritan sai zurien habia ingurutik igarotzen

dira eta hauek sentiberak dira joan-etorri horiekiko. Ez dira habietara bueltatzen inguruan inor ez dabil lela segurtatu arte. Horren ondorio bat da arrautzek ez dutela sarritan beharrezko berotasuna jasotzen, eta galdu egiten direla.

Honako hauek dira sai zuriaren inguruko datuak: Mugarrako eta

Atxarteko bikoteek galdu egin dituzte arrautzak aurtan. Urtean behin baino ez dituzte ipintzen —bat edo bi, normalean—, eta, beraz, sai zuriek ez dute kumerik haziko aurtan. Atxartekoaren kasuan, egoera oraindino kezkarriagoa da: azken hiru urteetan ez dute arrautzarik aurrera ateratzerik lortu. Baina arazoa

ez da oraingoa, eta urte askoan ikusi den joera bat dela dio Zuberogoitia. Datu honek ondo islatzen du hori: Anbotoko bikoteak hiru kume baino ez ditu hazi XXI. mendea hasi zenetik hona.

Egoera honi aurre egiteko errezeptariko bat "zentzuz" jokatzera delako azaldu zuen Zuberogoitia. "Mendian ibiltzeko, ohiko mendi bideak daude eta eurretatik ibili behar da. Hortik irteten dugunean hasten dira arazoak. Bakoitzak gura duena egiten badu, ez dugu parke naturalik izango. Denon ardura da gure aberastasun hau zaintzea", eskatu zuen.

## 'Elikatu Durangaldea' proiektua plazara

Herririk herri - DURANGALDEA

> LEHEN SEKTOREA. Durangaldeko baserriko ekoizleek, dendariak eta Urkiola Landa Garapenak 'Elikatu Durangaldea' proiektua aurkeztu zuten. Honako hau da proiektuaren helburu nagusia: eskualdeko baserriko ekoizten dituzten produktuei ikusgaitasun han-

diagoa ematea. Eskualdeko 45 baserriko ekoizleek, 22 dendarik eta Urkiola Landa Garapenak bat egin dute helburu hori lortzeko.

Ikusgarritasuna handitzeko, ekoizle eta dendarien arteko aliantza sustatuko dute aurrerantzean. Proiektura baturiko baserriko ekoizleek eskualdeko dendarien eskuetan ipiniko dituzte euren produktuak. Eta dendariak arreta berezia eskainiko diete produktuei eskualdeko komertzioetan.



## "Tenperaturaren igoeragaz, aldaketak gertatzen dabilta mahatsaren fisiologian"

Herririk herri - DURANGO

> IKERKETA. Helene Sánchez Zelaia (Durango, 1997) bioteknologian eta enologian aditua da. Klima aldaketari eta mahasti zaintzari loturiko artikulu bat idatzi du CAF-Elhuyar sariketarako, eta dibulgazio lan horrek Neiker Sariaren aipamen berezia jaso du.

Sanchezen esanetan, "tenperaturaren igoeragaz aldaketak gertatzen dabilta mahatsaren fisiologian; ziklo naturalak desakonpasatu egiten dira apur bat, eta horrek ardoaren kalitatea jaistea dakar", adierazi zuen. Aurreikuspenak horiek badira ere, ikerketa zentroak "lanean dabilta horrelakorik ez gertatze-ko", Sanchezen esanetan.



IURRETAKO UDALA

Tel.: 946 201 200

[www.iurreta.eus](http://www.iurreta.eus)



**Iurreta**  
Eleizateko Udala



Herritarren  
Arreta  
Zerbitzua

**HAZ**

Bidebarrieta, 5  
(48215 - Iurreta)





## Emakumeen talde berria Abadiño Sokatira Taldean: etorkizunerako zimenduak

> **KIROLA.** Abadiño Sokatira Taldeak itxaropentsu begiratzen dio etorkizunari. Sasoiloriatsuko lagun taldearen erretiroak ez du taldea galzorrira eramán. Justu kontrakoa gertatu da: erronka abagune lez hartuta, inoiz baino egitura zabalago eta sendoago bat eraikitzeko zimenduak ipintzen dabilta. Horren adibide da Abadiño Sokatira Taldearen

historian lehenengoz emakumeen talde bat sortu dutela. Horregaz batera, gazte beteriko mutilen taldeak ere bide onetik jarraitzen du. Apiriletik hona, 23 bat neska astean birritan entrenatzen dira Zelaletako probalekuan. Laia Gerrikagoitia (Abadiño, 1997) da euren taldearen bat eta taldearen sorrera prozesua gogoratu zuen: "Edu Mendizabal entrenatzaileak

beti errepikatzen zidan nesken talde bat sortu behar zela. Azkenean, batzuk probatzera animatu ginen. Hasieran 18 bat ginen eta, ahoz ahokoari eskerrak, apurka neska gehiago batzen joan zen". "Sufrimendu atsegina" ei da. Gizonen taldea ere errelebo betean sartuta dago. Gazte batzuek denboratxo bat daramate eta orain pare bat urte sartu ziren.



## Garaiko leku izenen mapa berritzeko lanetan buru-belarri

> **Herririk herri** - GARAI

> **ONDAREA.** Jon Ander Ramos historialaria garaitarren testigantza jasotzen aritu da, herriko leku izenak ahozko hizkeran zelan izendatzen diren jakiteko. Garaiko Udalak herriko toponimia mapa berritzeko beka esleitu zion iazko urrian, eta horretan aritu da hileetan, artxibategi, fitxategi eta garai bateko dokumentuen artean bilaketa lanak egiten. Ramosek dio garaitarren partetik informazio asko jaso duela, baina azpimarratu du belaunaldi bitan "sekulako galera" egon dela. "Garaian baserri eta txaletak jendez beterik daude, baina herritarrik gehienak ez dira baserriko beharretik bizi. Igartzen da basoko lana gertutik bizi izan duten herritarrek oso barneratuta ditzutela jabetzak eta leku izenak", azaldu zuen Ramosek. Edizio hau ixterako, mapa berritua kaleratu barik zegoen.



## Zornotzako Udalaren harrera saskibaloitaldeari

> **Kirola** - ZORNOTZA

> **SASKIBALOIA.** Zornotza Saskibaloitaldeak Zilarrezko Ligatik Urrezko Ligara igotzeko atarian geratu da aurten. Ez dute azken urrats hori ematerik lortu, baina horrek ez dio egingandako denboraldi bikainari me-

riturik kendu. Horregaitik, Zornotzako Udaleko udalbatzarra osatzen duten alderdi guztiek harrera egin zieten Zornotza klubeko arduradun eta jokalariei. Talde argazkia ere atera zuten. Andoni Agirrebeitia alkateak zoriondu egin zituen egingandako lanagaitik, eta animoak eman zizkien aurrera begira: "Lortuko duzue ametsa".





### Agerraldia osasun zerbitzu "iraunkor eta duin" baten alde

**Herririk herri** - DURANGALDEA

**> OSASUNA.** Durangaldeko EH Bilduk agerraldia egin zuen Traña-Matienako Osasun Etxearen aurrean. Eskualdeko osasun zerbitzuetan "murrizketak" egin ari zirela salatu eta zerbitzu "duin eta iraunkorra" eskatu zuten. Lehen arretak "paper garrantzitsua jokatzen du osasun zerbitzuetan", azaldu zuen Ainara Otxotorena Mañariko alkateak.

Herririk herri izaten ari diren arazoak zerrendatu zituzten eta iragarri zuten eskualde osoko bilkuretan mozio bat erregistratuko zutela Osasun Sailari lehen arretea indartzea eskatzeko.

### "Regoyosen koadroa dokumentu historikoa da"

**Kultura** - DURANGO

**> ARTEA.** Durangoko Arte eta Historia Museoak Darío de Regoyos margolari asturiarrak XX. mende hasieran Durangon, Iurretan, Elorrion eta Abadiñon margoturiko bederatzikoa bildu eta erakusketa antolatzen duen. Regoyosek orduan idatzirikoa gutun bitartez jakin daiteke zein hartu-eman izan zuen Durangogaz. "Durangon bizi izan zen urte biak oso produktiboak izan zirela idatzi zuen bere gutunetan. Oso gazte sentitzen zen, eta pintatzeko gogoagaz", azaldu zuen Garazi Arrizabalagak, Durangoko Arte eta Historia Museoko zuzendariak.

Erakusketagaz batera, museoak erosi berri zuen *Merkatua Durangon* koadroa jendaurrean aurkeztu zuten. Regoyos paisaiak eta herriko bizitzak islatu zalea zen eta erosiako koadroak horixe jasotzen du, hain zuzen ere. "Bertan, andre baserritarrak euren produktuak saltzen ikusten dira, eta gizonezkoak euren artean berbetan. Regoyosen koadroa dokumentu historikoa da. XX. mendearen hasierako Durango erakusten du", aipatu zuen Arrizabalagak.



**EUSKARAZ ETA  
BERDINTASUNEAN  
BIZI EGUNEZ  
EGUN!**

**berrizko  
UDALA**

**BERRIZKO  
UDALA**

Tel.: 946 824 036  
www.berriz.eus





## "Klub historiko honek merezi duena emateko prest gaude"

**Kirola** - DURANGO

> **SASKIBALOA.** Hilario Perez Meñica eta Alicia Gomez Legorburu buru dituen plataformak Tabirako saskibalo klubaren gidaritza hartu zuen ekain amaieran. Harrezkero, klubak presidente bi ditu, bere historian lehenengoz.

Hasieran, euren helburua ez zen zuzendaritzara sartzea, baina behin

barruan, dena emateko prest dardela adierazi zuten kargua hartu eta gutxira egindako elkarrizketan. "Nik ilusioz aurre egiten diot etapa berri honi. Klub historiko honek merezi duena emateko prest gaude, ni zein plataformako guztiok", adierazi zuen Gomezek. Perez aurretik ere Tabirakoko presidente izana da. Hasieran, erantzukizun hori berriro hartu ala ez zalantza zuela onartu

zuen. "Galdera hauek egin nizkion neure buruari: Tabirakoren presidente izan gura duzu? Ez. Tabirako desagertzea gura duzu? Ez. Orduan, aurrera egitea erabaki nuen", azaldu zuen.

Klubeko sail bakoitzak autonomia gehiagoz jardungo du legegintzaldi honetan. "Zuzendaritza zabala da. Sail bakoitzean arduradun bat baino gehiago egongo da eta elkarlana eta dibertsifikazioa bilatuko ditugu. Gidalerro batzuen barruan sail bakoitzak autonomiagaz aritzea bilatuko dugu", azaldu zuen Perezek klubeko egituren inguruan.



## Edalontziak berriro erabiltzeko egitasmoa

**Herririk herri** - DURANGO

> **OSTALARITZA.** Durangoko 19 tabernak erabilera bakarreko edalontziak berrerabilgarriak diren beste ontzi batzuekin ordezkatu zituzten. Harrezkero, eramateko kafea eskatzerakoan erabili daitezke edalontziak. Bezeroak euro bi ordaindu behar ditu, baina dirua berreskuratuko du edalontzia bueltatzen badu.



## Elikadura proiektua babesteko eskaria

**Herririk herri** - DURANGALDEA

> **ELIKADURA.** Berton Bertokoak esku artean duen elikadura proiektua babesteko eskatzen duen mozioa aurkeztu zuen Durangaldeko osoko bilkuretan. Mozioan jasotzen zenez, udal bakoitzagaz batzea eskatuko diote Hezkuntza Sailari, eta "herriko eskoletan gure baserriar, ekoizle eta arrantzaleen produktuak kozinatu daitezten eman beharreko pausoak aztertzea".

Berton Bertokoak hileak daramatza proiektu bat garatzen eskualdeko eskola publikoetako jangelak kudeatzeko. Besteak beste, Durangaldeko baserriarren eta ekoizleen produktuekin hornitu gura dituzte eskoletako sukaldeak. Horretarako, bilerak antolatu dituzte, besteak beste, baserriarrek.

## Maristak Fundifes zegoen tokira eramango dute

**Herririk herri** - DURANGALDEA

> **AZPIEGITURAK.** Durangoko Maristak ikastetxea pausoak ematen dabil etorkizuneko proiektua gauzatu ahal izateko. Espazio berria izango du Durangon, zentroa hazi ahal izateko. Tabirako Fundifes enpresa zegoen orubea izango da kokapen berria. Horretarako, Eusko Jaurlaritzagaz lankidetzara publiko-pribatu eredu izango duen egitasmoaren aurrekordia adostu zuten ekainean.







"Etapari berri bati ekingo diot, ilusioz beterik"

Herririk herri - ABADIÑO

> OSASUNA. 36 urtez Abadiñoako pediatra izan den Esther Gorostizak erretiroa hartu zuen ekainean. Esker oneko berbak izan zituen. "Matienako anbulatorioetik asko daramat bihotzean, asko eman didalako", adierazi zuen. Aurrera begira, "etapari berri bati ilusioz beterik" ekiteko prest zegoela esan zuen.



"Orain auzia ez da orientazioa bakarrik"

Elkarrizketa - ABADIÑO

> GIZARTEA. Josebe Iturrioz etika irakasle aritu da Abadiñoako institutuan azken ikasturtean. ANBOTOn egindako elkarrizketan azaldu zuen momentu honetan "urgentzia berezi bat" dagoela transexualitatearen auziagaz. "Eztabaida sozial handia dago. Orain auzia ez da orientazioa bakarrik. Nortasuna ipintzen da erdigunean", esan zuen.



Neska gazteen sarea lantzeko topaketa

Herririk herri - IURRETA

> FEMINISMOA. Leire Etxano Sarrionandia (Iurreta, 2002), Maitane Totorika Del Amo (Iurreta, 1999) eta Irati Areitio Sopelana (Iurreta, 2001) iurretarrak anfitrioi lanetan aritu ziren ekainean euren herrian antolatutako Biribilketa Feministan. Guztira, Durangaldeko 90 neska gazte baino gehiago batu ziren Iurretako plazan. "Funtsean, Durangaldeko neska gazteen topaketa da. Biribilketa Durangon egin zen orain hiru urte. Orain urte bi, Zaldibarren. Iaz,

pandemia dela-eta, ezin izan genuen topaketarik egin. Aurten, elkar saetzeari ekingo diogu berriro ere", azaldu zuen Totorikak ekimenaren nondik norakoei buruz. "Topaketak egiteko deia Zornotzako Suhaziak taldearen partetik etorri da. Batzar telematikoak egiten hasi ginen lehengo. Presentzialak gero. Azkenean, topaketak Iurretako plazan egitea erabaki genuen", gaineratu zuen Areitio. Topaketetan zehar, askotariko kontzeptuez hausnartzeko aukera izan zuten tailerren bitartez: transexualitatea, desheteronormalitatea, sare sozialak, lodifobia eta abar. Horrez gain, Durangaldeko herri bakoitzean

mugimendu feminista zein egoeratan dagoen aztertzeko balio izan zien. Horrelako topaketak egitea eta aurrerantzean egiten jarraitzea garrantzitsua dela defendatu zuten iurretarrak gazteek. "Esango nuke gazteak izanagaitik baditugula arazo batzuk, eta horri gehitzen badiogu neskek gaila, bada, beste hainbat arazo pilatzen zaigu. Gizartea matxista da oraindino ere. Argi dago gazteek larrialdi egoera batean gaudela. Ez dugu emantzipatzeko aukerarik. Ez dugu lan baldintza onak izateko aukerarik, eta, neska izanda, oraindino gutxiago. Lan askotan neska izateagaitik hartzen zaituzte. Edo kontrakoa, neska izateagaitik ez zaituzte hartzen. Genero arrakala da hori guztia", hausnartu zuen Totorikak.

mugimendu feminista zein egoeratan dagoen aztertzeko balio izan zien.

Horrez gainera, Iurretan egindako topaketak herrian talde bat egituratzen hasteko abiapuntu lez balio zezakeela azpimarratu zuten. "Iurretan, bere horretan, ez dago neska gazteen talde antolatu bat. Zerbait kaleratu behar izan denean, Gazte Asanbladak hartu du ardura hori, nahiz eta neska gazteak egon garen horren atzean. Batek daki, beharbada topaketa hauek talde bat egituratzen hasteko balioko digute. Badugu horretarako beharrezkoak, egia esanda", adierazi zuen Areitio.

Horrez gainera, Iurretan egindako topaketak herrian talde bat egituratzen hasteko abiapuntu lez balio zezakeela azpimarratu zuten. "Iurretan, bere horretan, ez dago neska gazteen talde antolatu bat. Zerbait kaleratu behar izan denean, Gazte Asanbladak hartu du ardura hori, nahiz eta neska gazteak egon garen horren atzean. Batek daki, beharbada topaketa hauek talde bat egituratzen hasteko balioko digute. Badugu horretarako beharrezkoak, egia esanda", adierazi zuen Areitio.



Beñat Gaztelu-Urrutia kudeatzaile Gerediagan

Kultura - DURANGALDEA

> ELKARRIZKETA. Gerediaga elkarteak ekainean jakinarazi zuen aurrerantzean Beñat Gaztelu-Urrutia abadiñoarra izango zela elkarte kudeatzailea. Gaztelu-Urrutiak herri mugimenduari eta euskalgintzari lotuta egin du bere ibilbide profesionala. 2002tik 2015era, Plateruena Kafe Antzokiko zuzendaria izan zen eta azken urte bietan euskara teknikari lana egin du Elhuyar Aholkularitzan.

Harrezkero, Durangoko Azoka antolatze lanetan aritu da, besteak beste. Iazko "salbuespeneko" edizioaren ondoren, aurten argi zuten aurrez aurreko azoka bat antolatu gura zutela, nahiz eta orinadino ez den izan aurreko urteetako modukoa. "2019ko Azokatik hurbilago egongo da 2020kotik baino, aurrez aurrekoa izango da eta. Mugaz eta konplexutasunez beterikoa izango da. Gune guztiak berreskuratuko ditugu", azaldu zuen. Ahalegin horren helburua Azokan sortzen diren "hartu-emanak eta interakzio sozialak errekuperatzea da".

Aurrera begirako beste zeregin bat Gerediagan egiten den lana ezagutaraztea izango da, bai eskualdean eta baita Euskal Herrian ere.





## "13/13 auziak ez zuen zentzurik orain hamaika urte, eta zentzu gutxiago du gaur egun"

Herrikerri herri - ZORNOTZA

> **EPAIKETA.** Uztailaren 12an Euskal Herriko zortzi herritarren aurkako epaiketa hasi zen Espainiako Auzitegi Nazionalan, eta Saioa Agirre zornotzarra izan zen epaituetariko bat. Fiskaltzak zazpi urteko espetxe zigorra eskatu zuen harentzat. 2010ean atxilotu zituzten 13/13 epaiketan auzipeturiko zazpi euskal herritarrek.

ANBOTOk Saioa Agirre elkarrizketatu zuen uztail hasieran. "Sentimendu kontrajarri asko dut", zioen orduan, "kezka eta urduritasuna gehienbat". Gaur egungo egoeratik begiratuta, honako interpretazioa egiten zuen zornotzarrak: "Garai hartan, Ezker Abertzalea hausnarketa prozesu batean sartuta zegoen. Horren oinarrian, konfrontazio armaturik bako eszenatoki baten konfigurazioa zegoen, eta hor inportantea zen euskal presoaren parte

hartzea. Euskal Herrian beti egon da presoekiko eta iheslariekiko elkartasun handi bat. Iruditzen zait estatua jabetzen zela horretaz, eta hortxe kokatzen dut gure aurkako operazio poliziala: eztabaida hura eta bake prozesua oztopatzea zuten helburu". Agirrek nabarmendu zuenez, "13/13 auziak ez zuen zentzurik orain hamaika urte, eta zentzu gutxiago du gaur egun".

Agirrerri elkartasuna erakusteko kanpaina ugari egin zuten Zornotzan. "Oso eskertuta nago, inpresionatuta. Maitasun dosi handia jasotzen nabil eta horrek gogorarazten dit ez nagoela bakarrik. Kaletik noala jende pilo bat hurbiltzen zait, eta horixe bera gertatzen zait lantokian, nire ikasleen familiekin, nire umeen ikastolan, Zornotzako eragilearen artean eta beste hainbatez. Oso hunkituta nago", esan zuen.



## "Pilotak behar banau beti aurkituko nau"

Kirolak - BERRIZ

> **PILOTA.** Ibai Zabalak bere ibilbide profesionaleko azken partidua jokatu zuen uztailean, Zornotzako pilotalekuan. Ibilbide luze baten amaiera izan zen hura. Berriztarrak 21 urtegar debutatu zuen, 2008an, eta orain arte jokaturiko 507 partiduetan denerik bizi izan du: 2010ean irabazitako txapela, galduriko final biak, lesioak... Pilotarien eta enpresaren arteko gatazkan esku hartzea ere egokitu zaio. Orain, denbora batean, pilota mundutik deskonektatzeko gogo duela azaldu zuen uztailean, azken garaietako kon-

tuekin "erreta" amaitu zuelako, baina etorkizunean pilota munduari laguntzeko prest dagoela adierazi zuen.

Laguna duen Oinatz Bengoetxeagaz osatu zuen bikotea azken partiduan. "Argi nuen Oinatzegaz jokatu gura nuela. Gauza asko bizi izan dut beragaz, kantxan eta kantxatik kanpora", adierazi zuen Zabalak. Joseba Ezkurdia eta Xabier Tolosa izan zituzten aurkari azken partidu horretan.

Urte hauetan guztietan lagundu dioten denei esker ona agertu zien Zabalak: "Kantxan dagoenaren inguruan jende asko dago: gurasoak, bikotekidea, kuadrillako lagunak... horiek asko balio dute eta kirolari baten ibilbidean faktore determinantea dira. Nik zorte itzela izan dut".



## Mallabian boulderra eraiki dute kultur etxearen eraikina dagoen azpialdean

Herrikerri herri - MALLABIA

> **AZPIEGITURAK.** Mallabian boulder berri bat eraiki dute kultur etxearen eraikina dagoen azpialdeko gela batean. Uztailean eskaladarako egiturak ipini zituzten, eta erorikoetatik babes-teko zoru berezia ipintzea falta zuten. Boulder berria irailean izan dute erabiltzeko herritarrek.

Udal arduradunek orduan azaldu zuten, sartu-irtenak kontrolatuko dituen sistema ipini dute kirol azpiegitura berria erabiltzeko. Hartara, boulderra erabiltzeko, herritarrek aurretik eskatu beharko dute txanda. Atea txartel batez edo mugikorragaz zabaldu ahalko da, aplikazio baten bitartez. Hala azaldu zuten Mallabiko udal arduradunek.



## Zornotzan 16 pertsona atxilotu dituzte gazte bat jipoitzeagaitik

**Herririk herri** - ZORNOTZA

**> ERASOA.** Alexandru Ionita Lemoako 23 urteko gaztea uztailearen 24tik 25era bitarteko gauean jipoitu zuten. Segur-tasun Sailaren esanetan, Jauregibarría inguruan gertatu zen, eta buruan emandako kolpeengaitik konortea galdua eta larriki zaurituta eraman zuten Gurutzetako ospitalera. Ertzaintzak ikerketa bat ipini zuen martxan gertaturikoa argitzeko, eta ikerketa horren barruan kokatu ditu atxilotetak. Hipotesi nagusia da hainbat gazte talde antolatuta modura jipoitu zutela gaztea.

Zornotzako herritarrek "agerraldi antimatxunoa" egin zuten uztaile amaieran gertaturikoa gaitzesteko.

Jendetza batu zen elkarretaratzean. Gazteari emaniko jipoia irmoki salatzearaz gainera, ekainean eta uztailean herrian izandako eraso matxista eta homofoboak salatu zituzten. Udalak ere "irmoki" gaitzetsi zuen eraso. Ohar batean azaldu zuen "mota guztietako indarkeriak kondenatzen" dituela, eta eraso jasandako gazteari eta familiari babesa eta laguntza eskaini zizkieten.

Hurrengo egunetan, Ertzaintzak zortzi lagun atxilotu zituen istilu horiekin lotuta. Bost adin txikikoak ziren, eta hiru 18tik 35 urtera bitarteko adin nagusikoak. Guztira, 16 pertsona atxilotu dituzte, zortzi adin txikikoak. Tartean, 15 urteko gazte bat atxilotu zuten Sestaon, jipoia bideoan grabatu zuelakoan. Durangoko epaitegiak espetxera bidali ditu atxilotutako zortzi helduetako sei, eta Adingabeen Fiskaltzak agindu du atxilotutako zortzi adin txikikoetariko sei adingabekoen zentroetan sartzeko.



## Eguneko arreta zentroa egingo dute Berrizen

**Herririk herri** - BERRIZ

**> UDALA.** EAJk eta PSE-EEk ohar baten bitartez jakinarazi zutenenez, Berrizeko eguneko arreta zentro bat izango du. Udalaren kompetentzia ez den arren, ambulatorio zaharrean eguneko zentro bat egiteko aukera egon daiteke,

eta aukera hori Bizkaiko Foru Aldundiagaz baloratzeko prest daudela esan zuten.

Bestalde, Berrizko Udalak azaldu zuen Adinekoren Zentro Berriaren proiektua Jubilatuen Egoitzan eta Liburutegi Zaharreko espazioan zentratzea erabaki duela, 400 metro karratuko eremuan, eta 400.000 euro ipiniko dituzte hori egiteko.

## Ander Sarriugarte, Mutrikuko arraunlaria

**Kirolak** - DURANGO

**> ESTROPADAK.** Ander Sarriugarte durangarrak estropaden munduan aurkitu du bere kirol pasioa. Urte bi daramatza Isuntza taldean. 2021ean batelen eta trainerillan denboraldiak egin ditu Lekeitioko taldeagaz. Eta traineruetan lehiatzeko aukera ere izan du Mutrikuko Arraun Taldeagaz.

"Arraunketa probatu eta bigarren egunera banekien hauxe zela nire kirola". Halaxe azaldu zion ANBOTOri. Traineruan atzeko partean joaten da sarritan, kontrapopan. Edo hor edo erdialdean eta istriborrean, eskumako aldean. "Hazteari utzi diot orain [1,90 metro neurtzen du] eta gorputza apur bat sendotzea falta zait. Baina fisikoa lantzea baino gehiago ofizioa ikastea falta zait", erantzun zuen 18 urteko durangarrak zertan hobetu dezakeen galdetutakoan.



**Smurfit Kappa**  
Central Forestal

**+50 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAINTZEN

**Smurfit Kappa**  
Nervi3n





## 'Plateruena: lantegi eta erakusleiho' kudeaketa proiektua aurkeztu zuten

Erreportajea - DURANGO

> **KULTURA.** 'Plateruena ta gero zer?' dinamikaren ondorioekin osaturiko kudeaketa proiektua aurkeztu zuten uztailean: *Plateruena: lantegi eta erakusleiho*. Plateruenaaren itxierak utziriko hutsunea eta Durangoko beharrianak betetzeko helburua du proiektu berriak, eta hori osatzeko askotariko eragile eta elkarreetatik

jasoriko iritziak hartu dituzte oinarri. Sustatzaileek azaldu zuten, lau ardatz dituen proiektua da.

Ardatzetariko bat da Plateruena "kultur sorkuntzaren prozesu osoa garatzeko espazioa" izan behar dela, azaldu zuten. "Honela, kultur transmisio horizontala sustatu gura dugu", zioten.

Hizkuntzari dagokionez, ekintzak programatzerakoan nahiz sortzerakoan, euskara "lehenestea" da beste ardatzetariko bat. Horrez gainera, aurkezpenean azaldu zuten, Durangoko kultur ekosistema "elikatu" eta kultur eragileen sarea osatzea "beharrezkotzat" jotzen dute, kultur egitasmoak eta erakundeen arteko

elkarlana koordinatzeko eta sustatzeko. Azkenik, Plateruena "herritarrek inplikatzeko mekanismoak" behar dituela azaldu zuten, "herritar guztientzako zerbitzua eskaintzeko".

Ondorio hauek 2020ko urrian 'Plateruena ta gero zer?' dinamika martxan ipini ondorengo hartu-eman biratik eta parte hartze prozesutik etorri ziren. Guztira, 22 elkarte eta erakundegaz, eta kultura munduko 34 pertsonagaz elkartu dira iritziak partekatzeko. Lau saio zabal ere egin zituzten eta 82 lagunek parte hartu zuten bertan. Dinamikako kideek Durangoko Udaleko alderdi guztiei aurkeztu diete proposamena.



## Trañapadurako zubia eraikitzeak akordioa

Herririk herri - ABADIÑO

> **HITZARMENA.** Abadiñoako Udalak eta URA agentziak N-634tik Trañapadurarako zubiaren eraikuntza finantzatzeko hitzarmena sinatu dute. Zubi horregaz, udalak trafiko astuna Traña-Matienako herrigunetik atera gura du. Abadiñoako Udalak 1.200.000 euro ipiniko ditu lanok egiteko. URAk 516.000 euro inguru ordainduko ditu.

## Izpilikuak, Abadiñoako emakume gazteak saretu gura dituen talde feminista berria

Herririk herri - ABADIÑO

> **FEMINISMOA.** Herrian ikusirik beharrian batetik, Abadiñoako hainbat neska gaztek Izpilikuak talde feminista sortu zuten apiril amaieran: Izpilikuak, Abadiñoako emakume gazteak saretu eta babesgune izan gura duen talde feminista.

ANBOTOk taldeko kideekin elkartzeko aukera izan zuen uztailean, eta taldea zelan sortu zen azaldu zuten: "Martxoaren 8aren bueltan, herrian beharrian bat zegoela ikusi genuen, emakume gazteak saretzeko eta feminismoa herriko hainbat esparrutara hedatzeko". Herrian izandako harretagaz "oso pozik" azaldu ziren.

Izpilikuak talde anitza dela argitu zuten, emakume gazte ororentzat atek zabalik dituen eta

"Abadiñoako emakume gazteak saretu, emakumeentzat babesgune bat izan eta herriko arlo askotan ikuspegi feminista txertatzeko sareak sortzeko helburuagaz" jaio dena.

Ekainaren 28an, Sexu Askapenerako Nazioarteko Egunean, herriko kaleetan LGTB askatasuna aldarrikatzera irten zuten Izpilikuak taldeak eta herriko zeinbat eragilek deituta.





## June Arbeo 12. Europako Txapelketan

**Kirolak** - DURANGO

> **ATLETISMOA.** June Arbeok (Durango, 1999) Europako txapelketako 12. postua lortuta amaitu du denboraldia eta 23 urtez azpiko ibilbidea. 2022an pistetara bueltatzen denean, maila absolutuan arituko da. Tallinen (Estonia) lehiaturiko 23 urtez azpiko Europako txapelketan, 12. tokian amaitu zuen 3.000 metroko oztopodun proba. Finalerdietan lan bikaina egin da sailkatu zen finalera; bere marka-



rik onenetik (10.02.36) segundo bi eskasera geratu zen: 10.04.13. Handik egun bira lehiatu zuen finala.

Durangarrak hamar onenetan geratu gura zuen, baina atarian geratu zen. "Erritmoa aldatzen ahalegindu nintzenez, hankak oso nekatuta igaritzen nituen, indarririk barik zelanbait esateko. Suposatzen dut ez nengoela finalerdietako ahaleginetik guztiz errekuiperatuta. Ez nago ohituta lasterke-ta bi hain jarraian lehiatzera", zioen. Hala ere, durangarra "pozik" agertu zen denboraldiagaz. "Orokorrean, oso pozik nago. 10 minututik jaitsi gura nuen, baina ez da posible izan", zioen.

## Publikoaren interakzioaren bila

**Kultura** - DURANGO

> **ARTEA.** Bagara kolektiboak ikusleen parte hartzea oinarri duen ikuskizun experimental artistikoa aurkeztu zuen uztailean: 'I[n]tera[k]zio laborategia'. Ane Gabilondo, Maider Etxegibel, Uribarri Atxotegi, Aritz Lasarguren eta Unai Bilbao daude musika, gorputz adierazpena eta irudia konbinatzen dituen ikuskizun horren atzean.

Ikuskizuna laborategi baten antzera dago antolatuta, Bagara kolektiboko kideek azaldu dutenez. "Ez dago istorio edo narratiba lineal bat. Jolas bat izango da, publikoaren interakzioa izango duena. Publikoari eskatuko diogu gaiak, desirak, kezka proposatzeko. Eta horiek jaso eta eszenifikatuko ditugu. Unibertso propio bat sortuko dugu", argitu zioten ANBOTOrri Bagara Kolektiboko kideek. Ildo horretan, "lengoaia hibrido bat sortuko dugu. Hau da, publikoak proposaturiko gai horietan, artista bakoitzak bere ikuspegia azaleratuko du. Eta gure arteko loturak bilatzea izango da gure lana", gaineratu zuten.

Kolektiboko kideak prozesu luze batetik datozela nabarmendu zuten ikuskizuna aurkeztu aurretiko egune-tan. "Badugu aurrelanketa bat, baina guretzat sorpresa izango da, ez daki-



gulako publikoak zein gai proposatu-ko dituen", esan zuten. Publikoaren parte hartze hori etorkizunean indartu beharreko bidea dela uste dute, eta denbora batetik hona gertatzen dabilen zerbait dela uste dute.

## Durango Nisan Gaur-sako gizonak azpitxapeldun

**Kirola** - DURANGO

> **ERRUGBIA.** Durango Nisan Gaur-sako gizonak azpitxapeldun geratu dira ligan. Gizonen taldeak Euskal Liga irabazteko aukeragaz jokatu zuen azken jardunaldia uztailean, Sarako Rugby Taldearen kontra. Baina Sara gehiago izan zen eta eurek lortu zuten garaikurra. "Liga irabazteko borrokan egon izana oso positiboa da. Are gehiago, kopuru aldetik taldean jokalaririk sobera izan ez dugula kontuan hartuta", zioen Aratz Gallastegi klubeko kirol zuzendariak.

Emakumeen talde nagusiak denboraldian zehar erakutsitako "progresioa" ere azpimarratu zuen Gallastegik: "Jokalaririk gutxigaz hasi zuten denboraldia eta dezente gehiagorik amaitu dute. Oraingo taldeari eustea espero dugu, etorkizunera begirako oinarriak lantzen joateko".

### Gazteen taldeak

Pandemiak kirol jarduerak eten beharra ekarri du denboraldiko sasoi batzuetan. Alde horretatik, klubarentzat "garrantzitsua" izan da formakuntza taldeak eta eskola berriro ere martxan ipintzea. "Gazteei kirol eskaintza berriro eman ahal izatea izan da denboraldiko gauzarik pozgarriena", zioen Gallastegik.



**FURESA**  
FUNDICION NODULAR





## Jaurlaritzak amaitutzat eman ditu Zaldibarko zabortegia egonkortzeko lanak

**Herririk herri** - ZALDIBAR

> **ZABORTEGIA.** Abuztuan, Eusko Jaurlaritzak amaitutzat eman zituen Zaldibarko Zabortegia egonkortzeko lanak. Maiatzaren 14tik aritu ziren lan horiek egiten, Joaquin Beltran bilatzeko lanak amaitzea erabaki zutenetik. Besteak beste, hondeatze lanak egin zituzten zabortegiari eusten dion oinarrian zehar, eta aurrealdean dike gehigarri bat egin zuten egonkortasuna bermatzeko. Jaurlaritzak orduan azpimarratu zuen zabortegia dagoen lur eremua "egonkorra" dela eta ingurua "etorkizunean ere egonkorra" izango dela. Estabilitatea kontrolatzeko neurketek halaxe frogatzen dutela gaineratu zuten. Bestalde, drainatze-sistemak instalatu dituztela gaineratu zuten, isurketak saihesteko.

Alberto Sololuzeren gorpuzkiak izako abuztuan aurkitu zituzten. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak Joaquin Beltranen gorpua topatzeko lanak bertan behera uztea erabaki zuen maiatzaren 14an. Jaurlaritzak luizia gertatu zenetik 18 hilabetera eman zituen amaitutzat la-

nak, zabortegian gertaturiko lur-jau-siak Joaquin Beltran eta Alberto Sololuzere beharginak harrapatu eta Eitzagako inguruetan ingurumen krisialdia sortu zenetik urte eta erdira.

### Akordioa

Irailean, Verter Recyclingen abokatuak akordioa sinatu zuten zabortegian hildako langile bien familiek eta fiskalagaz. Jose Ignacio Barinaga Zaldibarko zabortegiaren jabea-ri, Arrate Bilbao kudeatzaileari eta Juan Etxebarria ingeniariari egotzi zitzairen hondakindegiko hondamendiaren erantzukizuna. Hiru akusatuei zuzentzeko giza hilketa eta langileen aurkako delitu bat leporatzen zitzairen. Eta, akordioa lotuta, kartzelara joatea saihestu zuten. Hala ere, erantzukizuna onartu, familiei kalte ordainak ordaindu eta isun bat ordaindu behar izan dute.

Urriaren 14an, Verter Recycling 2002 SLko bazkideek batzar nagusian "sozietatea deuseztatzea eta likidazio-

aldia abiaraztea" erabaki zuten aho batez.

**Ingurumen delitua ote dagoen** Zaldibarko zabortegiko arduradunak Durangoko epaitegian deklaratu zuten abenduaren amaieran, hondakindegiko luiziagaz lotuta ingurumen deliturik egon ote zen ikertzeko. Enpresako arduradunak 9:30ak aldera sartu ziren epaitegira. Kanpoan, gizarte eragileek protesta egin zuten. Zaldibar Argituk, LAB sindikatuak eta Eskubide Sozialen Kartak luiziari loturiko erantzukizunak "azkeneraino" ikertzea eskatu zuten. Zaldibar Argitu plataformako Gaizka Zabarte bozeramaileak adierazi zuen erantzukizun horiek "arduradunenak" baka-rrik izan barik, gertaturikoa "ahalbidetu zuten agintari politikoenak" ere badirela.

Zabartek gogoratu zuen Zaldibar Argitu eta Eskubide Sozialen Karta "langileen osasunaren kontrako delitua ikertzen zuten auzitik kanpora" gelditu zirela. "Handik hilabetera auzia itxi zuten eta oraingoz ez dugu sententzia ezagutzen. Arduradunek homizidiodia onartu zuten sei hilabete-ko kartzela zigorraren truke. Beste era batera esanda: aberatsak ez doaz kartzelara. Eta, orain, ingurumenaren kontrako delitua ikertzen den auzi honetan, azkeneraino heldu dadila eskatzen dugu", gaineratu zuten.



## Abel Iriondo dantzari durangarra hil da

**Herririk herri** - DURANGO

> **AGURRA.** Abel Iriondo dantzaria hil zen abuztuan, bihotzekoak jota. Elgoibarren sorturikoa izan arren, Iriondo Durangon bizi izan da 1996tik. Bertako dantza munduari estu loturiko kidea izan da. Kriskitinen aritu da urte luze eta Aiko erromeria taldean jardun izan du dantzaldi saioak gidatzen. Dantzari eta dantzazaleek omenaldi xume batez agurtu zuten.



## Murgoitio, mundu mailan hirugarren

**Kirola** - ELORRIO

> **MENDI LASTERKETAK.** Gontzal Murgoitio (Elorrio, 2001) Munduko Txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen abuztuan. Lehenengoz parte hartu zuen horrelako txapelketa batean eta oso pozik agertu zen lorturiko emaitzagaz. Ez zuen horrelako emaitzarik lortzea itxaroten. Ikasteko aukera ona izan zela azaldu zuen.





### Elorrioko Musika Eskolan lapurrak sartu dira

Herririk herri - ELORRIO

> **LAPURRETA.** Elorrioko Musika Eskolan lapurretan egin zuten abuztuan, ikasturtea hasi baino astebete lehenago. Osturiko guztia eta horren balioa kalkulatzeko gatxa izan zen arren, Maria Herrero alkateordeak azaldu zuen lapurrek askotariko elementuak eraman zituztela: tronpetak, tronboiak, saxofoiak, gitarrak, biolinak, trikitiak, anplifikadoreak,... denerik. "Pianoa, bateria eta txirula batzuk kenduta, gainerako guztia", azpimarratu zuen, eta baita ordenagailu eramangarriak, material akademikoa eta kafe-makina bera ere. "Lapurretak disgustu handia eragin digu. Ederra egin digute", gaineratu zuen Herrerok.

Egoera onbideratzeko, Elorrioko Udala aseguru-etxeagaz hartu-emantetan ipini zen, gertaturikoak ikasturte hasiera ez oztopatzeko. Musika Eskolako diru poltsagaz oinarritzko materiala erosi zuten, udal arduradunek azaldu zuten.



### Abadiñoko 'Mendi' txakurra nagusi Bizkaiko txapelketan

Herririk Herri - ABADIÑO

> **ARDI-TXAKUR TXAPELKETA.** Karlos Ardanza abadiñarraren 'Mendi'-k Bizkaiko Ardi-txakur Txapelketa irabazi zuen abuztuan. 354 puntu eskuratu zituen Mungian jokaturiko txapelketan.



Enrike Mendiguren orozkoarraren 'Laia' txakurra sailkatu zen bigarren. Hartara, Ardanzaren 'Mendi'-k eta Mendigurenen 'Laia'-k ordezkatu zuten Bizkaia irailaren 18an Garain jokatu zen Euskal Herriko txapelketan. Mungia txapelketan, hamabi txakurrek parte hartu zuten; tartean, Abadiñoko lauk: Karlos Ardanzaren 'Mendi'-k, Kepa Ardanzaren 'Urbi'-k, Jose Angel Azkorbeitiaren 'Ekin'-ek eta Jose Migel Etxebarriaren 'Soli'-k.



### Goiuriako prozesioan emakumeak lehenengoz

Herririk herri - IURRETA

> **TRADIZIOA.** Aurten, Iurretako Goiuria auzoan, emakumeek ere eraman dute prozesioan bertako ermitako Ama Birjina biderearen zati batean, lehenengoz. Abuztuko lehenengo domekan izaten dute hitzordua Ama Birjinaren irudia Iurretako Aita San Migel elizara jaisteko. Gero, abuztuaren 15ean, berriro ere igotzen dute ermitara. "Emozio handiko unea izan zen", esan zuen parte hartu zuen emakumeetariko batek.



### Zornotzan Betzuen inguruko haitzuloa garbitu dute

Herririk herri - ZORNOTZA

> **GARBIKETA.** Euskal Espeleologoen Elkargoak eta Haitzulo Espeleologia taldeak Zornotzako Bernagoitia auzoko Betzuen inguruan dagoen AR-103 leizea garbitu zuten auzolanean. Guztira, 2.400 kilo hondakin atera zituzten: plastikoak, lata, burdin zatiak, gurgi zahar baten gurgila, bidioiak, mangerak, pilak, motor bobinak, gailu elektronikoak... Boluntarioak 4x4 ibilgailuetan bertaratu ziren eta zazpi joan-etorri egin behar izan zituzten ateratako hondakinak puntu garbietara eramateko. Hondakinak ateratzeko, espeleologiarako sorospen teknikak erabili zituzten. Guztira, 14 lagun aritu ziren garbiketa lanetan.



Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)  
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO  
(Hiper Eroskiren ondoan)  
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622  
www.neumaticosetxebarria.com







## Nasa yuwe hizkuntza berreskuratzen laguntzera eskualdetik Kolonbiara joanak

Erreportajea - DURANGALDEA

> **KOLONBIA.** Euskal Herriko zortzi lagunek Kolonbiara bidaiatu zuten nasa yuwe hizkuntza berreskuratzen laguntzeko. Tartean zeuden Durangaldeko hiru kide: Arkaitz Zarraga Azurmendi, Rosa Elizburu Oianguren eta Andoni Barreña

Agirrebeitia. Garabide elkartearen eskutik Kolonbian aritu ziren lanean, hainbat astetan, 34.000 bizilaguneko haran batean. Andoni Barreña adierazi zuenez, "berehala" igarri zuten proiektuarekiko interesa: "Organizazio indigenak

berak 40 pertsona liberatuta zituen hizkuntza sustatzeko. Baina eurekin elkartzerakoan konturatu ginen sustatzaile horiek ez zutela ezelango formakuntzarik. Hizkuntza zekiten pertsonak ziren, baina ez zekiten horretan idazten". Hori dela-eta, Durangaldeko hiru kideen lana formakuntza saioak eskaintzea eta hizkuntza eskola batean irakasteko estrategiak ematea izan zen, besteak beste. Etxera bueltatu eta gero, *Hizkuntza indigenak ama lurrea zaintzen* erakusketa eskaini zuten San Agustin kulturgunean. 400.000 pertsonak osatzen dute nasa yuwe hizkuntza komunitatea.

## Exhumazioa, osabari duintasuna itzultzeko

Herririk herri - ELORRIO

> **MEMORIA HISTORIKOA.** Jesus Aristegi elorriarrak exhumazio lanak hasi zituen Aranzadi zientzia elkarteagaz batera, bere osaba Jose Larrañaga Zarraoa Erorien Haranetik ateratzeko. Osaba Gazeta auzoko Aranzeta Txiki baserriatik eraman zuten tropa frankistek, 18 urte zituela. Aristegik esan zuen osaba Erorien Haranetik etxera ekartzeaz gainera, garrantzitsua zela gertaturikoa gogoratzea, justizia egitea eta erreparazioa aldarrikatzea.



## Jauretxe eta 'Ximist', ardi txakurretan goren

Herririk herri - GARAI

> **ARDI TXAKURRAK.** Roger Jauretxe artzain baigorriarrak (Nafarroa Beherea) eta bere 'Ximist' txakurrak Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketa irabazi zuten Garain, 357 puntuz. Finalean Durangaldeko bikote bat ere lehiatu zen: Karlos Ardanza abadiñarra, 'Mendi' txakurrarekin. Abadiñoko bikoteak zazpigarren egin zuen, 167 puntuz.



## Urien, sumendiaz bertatik bertara informatzen

Herririk herri - ABADIÑO

> **KAZETARITZA.** Naroa Urien kazetari abadiñarra La Palma uhartean egon zen Cumbre Vieja sumendiaren erupzioaren berri EITBn emateko. Urienek bertatik bertara ikusi zituen erupzioaren ikusgarritasuna eta hango biztanleen sufrikarioa. "Ikusgarria da sumendi bat aurrez aurre ikustea. Seguruenik, nire bizitzan ez dut berriro horrelakorik ikusiko. Baina, bestalde, La Palma kaosa da une honetan. Jendearen sufrimendua ikusi dugu", adierazi zuen. Ikusitakotik, Kanarietako biztanleen elkartasuna goraiatu zuen Urienek: "Ikargarri laguntzen diote elkarri. Bizipen hori ere neugaz eramango dut Euskal Herrira".



## 'Jantzari' dokumentala, Filmin plataforman

**Kultura** - IURRETA

> **DANTZA.** 2020ko urrian Iurretan estreinatu, eta, Euskal Herriko 27 zinema aretotan proiektatu eta gero, *Jantzari* dokumentalak pantaila txikirako saltoa egin zuen. Dokumentala Filmin plataforman ipini zuten ikusgai, ikus-entzunezkoak, filmak, telesailak eta bestelakoak batzen dituen plataforman. Filmaren sorkuntzan parte hartu zuen eragileetarikoa bat ANBOTO izan zen. Jone Guenetxea zuzendaria "pozarren" agertu zen dokumentalaren zabalkundeagaz.



## Joseba Barturenak ia 40 kiloko arraina arrantzatu du

**Herririk herri** - DURANGO

> **BITXIKERIA.** Joseba Barturen suhiltzaile durangarrak 39,5 kiloko lantesa arrantzatu zuen Ogella eta Lekeitio artean, urpeko arrantza egiten zebilela: "Haitzetatik itsasora sartu eta kilometro bat igeri eginda arrain multzo bat aurkitu nuen. Piezarik handiena arrantzatzea lortu nuen. Inoiz arrantzatu dudan handiena", esan zuen. Ordubetean aritzen zen arrantzan, arraina nekatu arte. Gero, beste ordubete behar izan zuen arraina lehorreratzeko.



## 226 kilometroko korrikaldia, proiektu solidario baten alde

**Erreportajea** - ABADIÑO

> **ELKARTASUNA.** Traña-Matienako kuadrilla bik Wop Challenge izeneko lasterketa solidarioan parte hartu zuten. Probako 19 etapak, 226 kilometro guztira, erreleboka egin zituzten. Talde biak elkarren aurka lehiatu ziren arren, helburu solidario baten alde egin zuten korrika. Izan ere, Wop Challenge lasterketan batuzko dirua gaixotasun neurodegeneratiboak ikertzera bideratu zuten.

Gabon zoriontsuak eta oparotasunez eta osasunez betetako urte berria opa dizkizuegu.

Zorionak !!



**Abadiño**  
Elizateko Udala



## Silvia Trigueros mendi korrikalariak historia egin du Italiako Tor des Geants lasterketa prestigiotsua hiru bider jarraian irabazita

**Kirola** - ABADIÑO

> **MENDI LASTERKETAK.** Silvia Triguerosek historia egin zuen Italiako Tor des Geants mendi lasterketa prestigiotsuaren hiru edizio jarraian irabazita. Aurtengo edizioan, Trigueros 89 ordu eta 57 minutu behar izan ditu 350 kilometroko eta ia 30.000 metroko desnibel positiboa duen proba amaitzeko. Bidean oztopo asko gainditu behar izan zuen. Bero kolpeak, tripako minak eta lo egiteko zailtasunak, adibidez. "Aurten sekula ger-

tatu ez zaidan zerbait gertatu zait: ezin nuen likidorik edan. Ondorioz, deshidratatu egin naiz eta hankak puztu zaizkit. Askok sufritu dut alde horretatik", adierazi zuen lasterketa amaitu berrian. Jaki solidorik ere ez zitzaion sartzen une askotan, eta gelak hartuta elikatu zen. "Aurreko aldietan hiru-lau gel hartzen nituen asko jota, eta aurten hogeitatu hartu ditut", esan zuen. Hala ere, bidean topaturiko arazo horiek guztiak gainditzeko gai izan zen. Bestalde, Trigueros 2018an, 2019an eta 2021ean irabazi du kirol proba hau. 2020an ez zen jokatu, pandemiagaitik. Bigarren postu bat ere badu, 2017koa. 2022rako beste helburu bat finkatu zuen: Reunión irlako Diagonale des Fous proban parte hartzea.

Zarateren lana eskertu zuen. "Bion artean lorturiko garaipena izan da eta asko eskertzen diot laguntza. Garaipen hau bion meritua da", adierazi zuen. Emakumeetan onena izan zen eta sailkapen nagusian 13. tokian geratu zen.

Trigueros 2018an, 2019an eta 2021ean irabazi du kirol proba hau. 2020an ez zen jokatu, pandemiagaitik. Bigarren postu bat ere badu, 2017koa. 2022rako beste helburu bat finkatu zuen: Reunión irlako Diagonale des Fous proban parte hartzea.



## Mikel San Jose, Amorebietan eroso

**Erreportajea** - ZORNOTZA

> **FUTBOLA.** Bere azken futbol kontratua izateko esperantzaz joan zen Liverpoolera, familiagaz. Baina birusak dena aldatu zuenez, etxera bueltatzea erabaki zuten. Mikel San Josek pozik hartu zuen Amorebietan jokatzeko deia. Lehen Mailan ikasitakoagaz Zornotzako taldeari laguntzeko asmoa agertu zuen.



## Hontza museoa bisita kopurua hirukoiztu du

**Akutilua** - MAÑARIA

> **MUSEOAK.** Ikasturte latza izan eta gero, udako eguraldi petralak mesede egin zien Hontza museoko Enrike Huerta eta Leire Huerta aita-alabei. Pandemia aurretiko bisita kopurua hirukoiztea lortu zuten.



## Izagirreraren 'Nora' filma, zinemetan

**Kultura** - ZORNOTZA

> **ZINEMA.** Lara Izagirre zinema zuzendari zornotzarrak bere bigarren lan luzea aurkeztu zuen: *Nora*. Zuzendariak "pelikula polit" bat egin gura zuen. "Besarkada baten parekoa" izango zen istorio bat. Izagirrek adierazi zuen "gertuko gauzak" kontatzea gustatzen zaiola, eta horregaitik kokatu zituela filmeko emakume protagonistak Zornotzan. "Niretzat errazena da, ezagutzen dudalako. Gainera, zintzoena iruditzen zait. Zergaitik

aukeratu beste herri bat nirea dudanean?", adierazi zuen zuzendariak.

*Nora* filmak 30 urteko gazte baten ametsak eta bidaiak kontatzen ditu. Aitita hilko zaio Norari, eta haren Dyane 6 autoa hartuko du herentzian. Gertaera horiek bultzatuta, Nora Euskal Herritik zehar bidaiatuko du. Baina berehala konturatuko da bidaiatzea ez dela bere dohainetako bat, eta idazle izateko ametsa aitzakia bat dela aske izateko, eta, lehenengoz, zoriontsu izateko. Filmean eskualdeko aktoreek (Loli Astoreka), argazki zuzendariak (Gaizka Bourgeaud) eta musikariek (Izaro Andres) parte hartzen dute.



**EZ ZAIZU  
FUNTSEZKOENA  
FALTAKO**

**BILBAO BIZKAIA UR  
PARTZUERGOAREN  
GIZARTE-LAGUNTZA**

**DSBE-BGE  
HARTZAILEENTZAT**



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia  
[www.consorciodeaguas.eus](http://www.consorciodeaguas.eus)

INFORMAZIOA







## Atxondon bizi diren hiru herritarren senideak hil dira Cadizen, patera itsasoan hondoratuta

Erreportajea - ATXONDO

> **MIGRAZIOA.** Urriaren 14an, 28 lagun zeramatzan patera bat hondoratu zen Cadizen, Trafalgar lurmuturraren inguruan (Espainia). Hiru lagun bizirik atera ziren, 10 gorpu aurkitu zituzten eta gainerakoak desagertuta daude. Atxondoko Harrera

Herriak jakinarazi zuenez, herrian harreran bizi diren hiru pertsonak euren senideak galdu zituzten urperatze hartan: bost lehengusu, eurtariko baten emaztea eta bost urteko semea. Harrera taldeak gogor salatu zuen gertaturikoa eta elkarretaratze-

ra deitu zuen herriko plazan. Asko izan ziren deialdiagaz bat egin zuten herritarrak. Dozenaka lagunek adierazi zieten babesa Atxondon harrean bizi diren herritarrei. Harrera taldeak gorpuak aberriratzeko lanak hasi zituen.



## Merezitako omenaldia emakume artzainei

Erreportajea - DURANGALDEA

> **ARTZAINZEA.** Apeko Artzain Egunean Felisa Intxaurre zeanuriztarra, Miren Bengoa otxandiarra eta Mertxe Totorikaguena izurtzarra omendu zituzten. Artzain lanetan denbora askoan aritutako emakumeak dira hirurak, eta pozik agertu ziren jasotako sariagaz. Omenaldiaren bultzatzaileek emakume artzainek egindako lana ikusarazi gura izan zuten ekitaldiagaz. Hiru emakumeek argi dute honako hau: "Gizonezkoa arduratu izan da artalde zainetzeaz, baina atzean andrea izan ez balu ezinezkoa izango zen artzaintza aurrera ateratzea".

## Alberdiren lau okindegi itxi dituzte eskualdean

Herririk herri - DURANGALDEA

> **KOMERTZIOAK.** Iurretako Panificadora Alberdi enpresak atek itxi zituen, ia ehun urteko ibilbidearen ondoren. Horrek zuzenean eragin zien Durangaldeko sukurtsalei. Eskualdean Alberdiren hamar okindegi egon dira eta hainbatek moldaketak egin behar izan dituzte. Iurretako dendak eta Durangoko hiruk atek itxi zituzten. Abadiñokoak Durangora lekualdatu zuen negozioa, eta San Faustokoak lokala aldatu zuen. Gainerakoek bestelako ogiak eta produktuak salduta egin dute aurrera.



## Urteko 365 egunetan Urkiola igotzea lortu du

Kirolak - DURANGO

> **HEZUR MUINA.** Mauri Imazek amaitu du urtebetez egunero Urkiola bizikletan igotzeko erronka solidarioa. Azkenengo igoera 30 bat ziklistak lagunduta egin zuen, bertaratutakoen txaloen artean, nekatuta eta hunkituta. Besteak beste, aurrekoa dantzatu zioten. Tourkiola erronkagaz, hezur-muina ematearen garrantzia lau haizetara zabaltea gura izan du Imazek. Durangoko udalbatzak hezur-muina emateko gunea ipintzea eskatu zion Osasun Sailari.





**IZURTZA**  
UDALA

Tel.: 946 813 548  
[www.izurtza.net](http://www.izurtza.net)







## Durangoko hilerriko hobi komunetan ehortzitakoak topatzeko ikerketa, martxan

**Herririk herri** - DURANGO

**> MEMORIA HISTORIKOA.** Gerediaga elkarteak, Durango 1936 elkarteak eta Durangoko Udalak ikerketa bat hasi dute Martxoaren 31ko bonbardaketaren ondorioz hobi komunetan lurperatu zituzten biktimak lokalizatzeko. Eraso hartan hildakoak Durangoko hilerrira eraman

zituzten bonbardaketaren egunean bertan eta ostekoetan, eta biktimetarik asko hobi komunetan lurperatu zituzten. Gaur egun, jakina da hobi komunetan lurperatutakoak 84 direla, Gerediaga elkarteko Jon Irazabali eskerrak. Baina arazoa da hobi komun horien kokapena, gaur gaurkoz,

ezezaguna dela. Eta puntu horretan dago, hain zuzen ere, ikerketako gako nagusietariko bat. Durangoko Udalak eskaera ofiziala egin dio Gogora institutuari. Hobi komun horien kokapen zehatza zein den ikertzeko eskatu dio. Gerediagaren ustez, bi liriteke hobi komunak, eta Durangoko

hilerrian egongo liriteke. Bertako lurperatzailea izandakoaren testigantzetan eta garaiko dokumentazioetan oinarrituta kokatu izan dute balizko lokalizazio hori.

Bestalde, Gerediaga, Durango 1936 eta udala lanean hasi dira "ehortzitakoak identifikatu eta gaur egungo familiarreko eta ondorengoak lokalizatzeko". Hilerrian hobi komunetan lurperatutakoaren senitartekoekin topaketa bat egin gura dute. Ikerketa honen helburua da Durangoko kanposantuko hobi komunetan ehortzitakoei "gune duina atontzeko aukera bat zabaltzea".

## Ituna, Mañarian baso autoktono bat hazteko

**Herririk herri** - MAÑARIA

**> INGURUMENA.** 4,1 hektareako lur-saila erosi eta gero, Mañariko Udalak eta Lurgai Fundazioak 20 urterako hitzarmena sinatu zuten arlo horretan baso autoktono bat hazteko. Lur-saila Mañaritik Urkiolarako bidean dago. Errepidetik ez da ikusten, baina Saibigainera doan pistatik bai, alboan dago eta. Orain arte, pinuek, jatorri

amerikarra duen Lawson espezieko zipresek eta astigar japoniarrek osatzen zuten hango zuhaitzia. Baina alde biek lorturiko akordioari eskerrak, datorren hamarkadetan urkia, haritz, pagoa, serbala eta gorostia sartuko dituzte. Lurgai Fundazioak Jon Hildagok azaldu duenez, "hemendik 25 bat urtera", berez hazten denagaz eta Fundazioak landatzen duenagaz baso autoktono gazte bat egotea gura dute. Lehenengo urteetan eremua hesituko dute, animaliengandik babesteko.



## Garateren olana eta Urigoitiaren irudiak kentzea agindu dute

**Herririk herri** - OTXANDIO

**> EPAIA.** Euskadiko Auzitegi Nagusiak Ruben Garateri buruzko olana eta Luzia Urigoitiaren horma-irudia Otxandioko anbulatorioko hormatik kentzeko agindua eman zuen. Erabakiak ondoeza eragin zuen. Herritarrek, Otxandioko Udalak, Garateren senide eta gertukoek, eta Etxerat elkarteak "dispertsioak eragindako sufrimenduaren aitortza" eskatu zieten instituzioei.



## Elizako pelikanoa Prado museoan egon da ikusgai

**Herririk herri** - OTXANDIO

**> ONDAREA.** Madrilgo Pradoko Museoak arte iberoamerikarrari buruzko erakusketa inauguratu zuen. Bertan, mendeetan zehar Amerikatik Espainiara eramandako artelanak ipini zituzten ikusgai. Piezetariko bat Otxandioko Santa Marina elizakoa izan da: zilarrezko pelikano eukaristiko bat. Orain arte, Bilboko museo batean egon da ikusgai.





## Forjarien jauregia hustu eta eraikina bota dute

Herririk herri - ZORNOTZA

> **ONDAREA.** Ertzaintzak Zornotzako Munarri gaztetxea hustu zuen urriaren 7an. Agenteak eraikinerara sartu ziren eta barruan zeuden gazteak kanporatu zituzten. Momentu hartan, hiru gazte zeuden eraikin barruan. Tartean, herrian harreran bizi den errefuxiatu bat. Ertzaintzak hirurak kanporatu eta identifikatu zituen. Bien bitartean, kanpoan, 30 bat gazte batu ziren desalojoaren kontra protesta egiteko.

Eraikina hustu eta berehala bota zuten. Zornotzako Forjarien jauregia historia handiko eraikina izan zen. XX. mendeko industrializazio garaiko ikurretari bat izan zen, asko izan zirelako bertako forja lantegietan beharra egin zuten zornotzarrak.

Desalojo eta eraisketa hartatik aste gutxira, Zornotzako gazte mugimenduak beste eraikin bat okupatu zuen. Garai bateko Perforación S.A. lantegia. Ogena auzoan dago fabrika zaharra, eta, gazte mugimenduko kideek diotenez, 2009tik egon da eraikina hutsik. Okupazioa urriaren 20an gauzatu eta gaztetxea atontzeari ekin zioten. 'Matrailu' gaztetxea ipini diote izena.

## 106.686 txerto dosi ipini dituzte 'txertodromoan'

Herririk herri - DURANGO

> **KORONABIRUSA.** Osakidetzak koronabirusaren aurkako txertoa ipintzeko gunea ipini zuen Durangoko Landako Gunean. Apirilean hasi zituzten txertaketak, eta irail amaieran amaitu zuten zerbitzua. Osakidetzak emanda-

ko datuen arabera, 106.686 txerto dosi ipini zituzten, guztira. Hasieran, adinez nagusienak ziren herritarrak txertatu zituzten. Gero, 62tik 65 urtera bitartekoak. Eta adin tartea jaitsiz joan ziren harik eta 12tik 15 urtera bitarteko nerabeengana ailegatu arte. Landako Gune-ko 'txertodromoa' Abadiñoako, Berrizko, Zornotzako, Elorrioko, Iurretako eta Zaldibarko herritarrak txertatzeko zabaldu zuten. Baina gure eskualdetik kanpoko herritarrak ere deitu zituzten bertara. Adibidez, Ondarroako eta Markinako herritarrak.



## 22 ETXEBIZITZAREN ERAIKUNTZA BERRIA

**BIGARREN FASEKO AZKEN ETXEBIZITZA SALGAI, HIRUGARREN FASEA 2022. URTEAN HASIKO DUGU. DEITU INFORMAZIOA JASOTZEKO.**



ERTZAIN ETXEAREN ONDOKO BIRIBILGUNEAREN



94 681 44 95





## 20 urteko ibilaldiaren errepasoa: papereko ediziotik aro digitalerako jauzia

Erreportajea - DURANGALDEA

> **20. URTEURRENA.** ANBOTOk 20 urte bete zituen azaroaren 9an. Urteurrenaren harira, komunikazio taldeak ale berezia prestatu zuen. 2001etik martxan den hedabideak hamarkada bi betetzeak gogoeta egiteko eta aurrera begirako erronkak planteatzeko aukera eman zuen. Ale berezi horretan elkarrizketa ugari kaleratu zuen. ANBOToren sorreran parte hartu zuten Juan Luis Erzillak eta Idurre Maortuak sasoi hartako bizipenez berba egin zuten. "Durangalderako euskarazko erreferentziazko proiektu bat sortzea zen asmoa", azaldu zuten. Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentek azaldu zuenez, "opari handi bat da herri kultura hori zabaltzea, Durangaldeko herri bakoitza bizirik dagoela ikustea".

ANBOToren sorrera gogoratze-ko, Jone Guenetxea zuzendariak Eraz aldizkariak aurretik eginda-

ko lana azpimarratu zuen: "Durangaldean bazegoen euskarazko tokiko informazioa kontsumitzeko tradizioa, eta hori Erazi eskerrak izan zen". Debagoieneko komunikabideen ereduari jarraituta, ANBOTOk irakurle gehiagorengana heldu gura zuten, doako hedabide sortuta. Aldizkari formatutik egunkari papererako jauzia eman zuten. "Sasoi hartan, euskara elkarte asko zegoen Durangaldean, eta talde horiek izan ziren proiektuaren bultzatzaileak. Euskara eta feminismoa erdigunean ipintzea hasieratik izan dugu argi", esan zuen Guenetxeak.

Hamarkada bitan, hedabideen jarduna goitik behera aldatu da.

### Sare sozialen sasoi

Aro digitalak hedabideen ekoizpenean eta kontsumoan eragin du azken urteotan. Informazioa mugit-

korretik eta sare sozialen bitartez heltzeak kontsumo ohiturak aldatu ditu. "Irakurleek zein informazio jaso gura dute webgunean? Eta paperean? Argi dugu webgunea ezin dela papereko albisteen biltegi huts bat izan. Horregaitik, gure komunitateko hainbat pertsonaren laguntzagaz focus group bat egin genuen. Konturatu ginen papera elkarrizketa eta albiste sakonagoak irakurtzeko izan zitekeela, eta webgunea, ostera, momentuko aktualitaterako", adierazi zuen Guenetxeak. Horrela, Durangaldeko aktualitatea urteko 365 egunetan lantzeko apustua egin zuen ANBOTOK. "Durangaldean erreferente izateko, webgunean momentuko berriak gertatzen zirenean lan behar genituela erabaki genuen. Eta, horretarako, uneoro erredakzioa martxan izan behar genuela", gaineratu zuen.



### 'Miñan' liburuaren aurkezpena Durangoan

Erreportajea - DURANGO

> **LITERATURA.** Amets Arzallus Xilabako txapela jantzi berri etorri zen Durangoko Bizenta Mogel liburute-gira, azaroan. Baina ez bertsolaritzaz aritzeko, gertutik ezaguturiko migrazio istorioak eta hausnarketak partekatzeko baino. Amets Arzallusek eta Ibrahima Baldek *Miñan* liburua idatzi zuten orain urte bi. "Migratzaileen egoerarekiko kezka konkretzia eta lurra hartzen ditu testigantza harreman sakona duzun batengandik jasotzerakoan", azaldu zuen Arzallusek.



### Ixone Mendizabal, Elorriotik Kiosera

Herrikerri herri - ELORRIO

> **ERREFUXIATUAK.** Ixone Mendizabal elorriarra Kiosen egon zen azaroan, Grezian, errefuxiatuen kanpamentuan (argazkian, eskuman, Itsas Salbamendu Humanitarioko kideekin). Elorriarrak hamabost egun egin zituen han, erizain lanetan, Itsas Salbamendu Humanitario elkarteagaz. "Han oso egoera gogorrek ikusi ditut, baina esperientzia modura oso ona izan da. Badakit apur bat kontraesan korra dena, baina oso talde ona izan dugu eta errefuxiatuak eurak ere duten onenagaz etorri dira beti gugana. Errepikatze moduko esperientzia izan da", azaldu zuen elorriarrak.





## Durango emakumeen kartzelan egondakoei omenaldi hunkigarria

Herririk herri - DURANGO

> **MEMORIA HISTORIKOA.** Azaroaren 27an egindako Agurrik Gabeak ekitaldian, 1939-1940. urteen artean

Durango emakumeen kartzelan egondako presoak omendu zituzten. Horretarako, soka-dantza berezia

egin zuten. Durango dantza taldeek, Aikoko kideek eta baita Iurretako plazan entseguak egiten dituen taldeko kideek parte hartu zuten. 49 emakume lore sorta baten inguruan dantzatu ziren elkarren ondoan, Patxi Labordaren koreografiagaz eta Joseba Sarrionandiak osaturiko koplen erritmora. Erika Lagomak abestu egin zuen eta Onintza Azkaratek biola jo zuen. "Andre presoak suntsitu arren, lore ederren moduan presente daude pertsona

duinen errekuentuan", esaldiagaz amaitu zuten kantaldia.

Durango 1936 elkarteak eta Andreak elkarteak antolatu zuten ekitaldia, eta Maite Anduezak bere testigantza azaldu zuen. Kartzela horretan 'Chiloeches' gatzizena zuen preso ezagutu zuen txikitari, sei bat urte zituela. "Amagaz oso pozik joaten nintzen bisitan, 'Chiloeches'-ek eskuz egindako trapuzko panpinak oparitzen zizkidan eta", gogoratu zuen durangarrak.



## Sorkuntzaren ekosistema

Kultura - DURANGO

> **SORMENA.** Durango Udalak Durango Sor(-tzaileen)leku Bekaren irabazleen aurkezpena egin zuen San Agustin kultur gunean. Bekaren deialdiak 95.000 euro banatu ditu arte eszeniko, ikus-entzunezko, musika, literatura eta ilustrazioa, obra plastiko

eta grafikoak bultzatzeko. Orain, urtebeteko epea izango dute proiektuok gauzatzeko. Epaimahaia Galder Perez Radio Euskadiko kultur edukien zuzendariak, Ane Abanzabalegi Astarloa Kulturgintzako presidentek, Miriam Romatet Zumaiako Udaleko Kultura Saileko zuzendariak eta Xabier Gantzarain idazle eta arte kritikariak osatu zuten, eta aurkezturiko proiektuen kalitate handia eta proiektzioa azpimarratu zituzten.



## EHE: euskararen errepublika aldarri

Herririk herri - DURANGO

> **EUSKARA.** Euskal Herrian Euskarazek manifestaziora deitu zuen Durango, abenduaren 6rako. Horren aurretik, azaroan, mahai-ingurua antolatu zuten. Egungo legedia euskararentzat "agortuta" dagoela diote. Koldo Zarate eta Aitziber Areitio Durango Euskal Herrian Euskaraz elkarteko kideak dira. "Betidanik jaso izan ditugun erasoak lotsarik barik areagotzen dabilta aspaldian: epaitegietatik hizkuntza politika egiten ahalegintzen dira, Molac legeagaz eta halakoekin; euskaraz ikastea oztopatu gura dute; nafarren hizkuntza eskubideek zonifikatuta jarraitzen dute; euskaldunak burgesiagaz eta pribilegioekin lotzen gaituzte... Hizkuntzaren gatazka agerian geratzen dabil", azaldu zuten EHEko kideek.





## "Aintzat hartu ez diren emakume durangarren ahotsa azpimarratu gura dugu, herriko memoria bizia jasotzeko"

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **ANDRAGUNEA.** Andragunean proiektu kolektibo bat hasi dute emakume durangarren memoria bizia berreskuratzeko. Gerra zibilek honako kontakizuna eraikiko dute denen bizipenetatik, oroitzenetatik eta gainerako emakumeen elkarrizketetatik tiraka. 'Durangas' izena ipini diote proiektuari.

Huts laborategiko Raquel Calvo eta Zuriñe López de Sabando kideak dabilta saioak dinamizatzen. Azaroan egin zuten lehenengo lanketa, baina dinamikek segida izango dute barikuro-barikuro, hementik eta 2022ko maiatzera bitartean, Andragunean. Hori dela eta, gainerako emakume guztiak gonbidatu dituzte proiektuan parte hartzera. Jasoriko informazio guztiagaz dokumental bat egin gura dute.

"Durangoko historia emakumeen ikuspuntutik kontaktzea da proiektuaren helburua, bizi izan duten historia kontaktzea", azaldu zuten ekimenaren bultzatzaileek. "Tailerlean parte hartzen dutenek erabakiko dute zer kontaktuko den. Taldeak berak egingo du ikerketa ariketa. Eurek planteatuko dute zein izango den emaitzaren ildo. "Artetik, ikerketatik, eta elkarrizketetatik ekingo diogu. Berba asko egingo dugu norbere historiaren inguruan. Zein gertakari izan den garrantzitsua bakoitzarentzat. Hori dena batzen ahaleginduko gara. Eta hor sartu gaitezke politikan, soziologian, amatasun formetan, hartu-emanetan, euskalgintzan eta abar", azaldu zuten Calvok eta López de Sabandok.



## Gaztetxea izandakoa botatzea eraikinaren jabeek ordainduko dute

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **AKORDIOA.** Durangoko Udalak, URak eta eraikinaren jabeek akordio-rako oinarria adostu zuten gaztetxea izandakoa botatzeko. Alde batetik, eraikinaren eraisketa jabeek ordainduko dute. Bestetik, URak zubia ordezkatu du eta udala ingurunea hobetzeaz arduratuko da. Durangoko Udalak dioenez, 2022ko azaroan botako dute eraikina. Horrela, URak, Montevideo kaleko zubia moldatuko du. Obra horrek 1.160.000 euroko inbertsioa izango du.



## Saguzar espezie biren kolonia identifikatu dute Mañarian

▣ **Erreportajea** - MAÑARIA

> **SAGUZARRAK.** Saguzarra animalia soziala da eta urteko hainbat sasoitan kolonietan batzen da. Kolonia mota nagusi bi daude: hibernatzeko koloniak, negua elkarregaz igarotzeko sorturikoak, eta kumatze-koloniak, batez ere saguzar emeek osatzen dituztenak. Kumatzeko kolonia bat Mañarian dago. EHUko ikerketa talde batek egin izan du bere jarraipena. Adituek gurago dute kokapen zehatza zein den ez esan, animalien segurtasunagaitik. Espezie bik osatzen dute kolonia: ferra-saguzar handiak eta Geoffroy saguzarrak. "Ehunka gutxi batzuek osaturiko kolonia da", esan zuen Aitor Arrizabalaga Gabako elkarteko kideak.



## Hot Shots Etxano, Zornotzako umeen hockey talde berria

▣ **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **HOCKEY.** Ia-ia kasualitatez hasitako ametsa egia bihurtu dute: Etxanoko umeek eta gurasoek hockeyan aritzeari ekin zioten orain hiru urte, modu informalean, bertako frontoian. Orain, kluba ofizial egin dute eta kirol honetarako zaletasuna Zornotza osora zabaldu dute. Herriko 28 bat ume Hot Shots Etxano taldean jokatzeko dabilta. Durangaldeko hockey talde bakarra da eta herriko umeen kirol eskaintza zabaldu gura dute proiektuagaz.






DURANGOKO

## Durangoko Azoka: 25.000 lagun baino gehiago batu DA!

Herririk herri - DURANGO

> **AZOKA.** Gerediaga elkarteak aurtengo Azokaren balorazio positiboa egin du. 25.000 kulturzaletan bisitatu zuten Landako Guneko aurrez aurreko Durangoko Azoka. Kulturzaileen, argitaletxeen, diskoetxeen eta sortzaileen konpromisoa eta ardura eskertu dituzte.

Gerediaga elkartearen presidentea Nerea Mujikaren berbetan, erantzuna "bikaina" izan da. "Pozik gaudere berritako aukera izan dugulako, kulturzaletan eta sortzaileekin plazan elkartu ditugulako berritako, egungo egoerara moldatuta bada ere", esan zuen. Ahotseneak 7.500 bisitari izan zituen, eta Liher, Willis Drummond, Anari, Skakeitan, Kai Nakai eta Nikotinaren disko aurkezpenetan aforoa bete egin zen. Literatur solasaldien kasuan, Alaine Agirreren, Eider Rodriguezen, Jon Maiaren eta Leire Vargasen aurkezpenak izan ziren jendetsuenak.



MAÑARIKO UDALA

946 818 998  
www.manaria.org





## Semaforoak ipini dituzte Izurtzan ibilgailuen abiadura gutxitzeko

**Herririk herri** - IZURTZA

> **AZPIEGITURAK.** Urte askoan, herrigunetik igarotzen diren ibilgailuen abidura gutxitzeko neurriak hartzeko eskatu izan dio Izurtzako Udalak Bizkaiko Aldundiari. Azkenean, hainbat alternatibaren artean, Aldundiak 'uhin berdea' izeneko semaforo sistema baten aldeko apustua egin du. Semaforo horiek martxan ipini zirenetik arazoa guztiz konpondu ez den arren, ibilgailuen abiadura nabarmen jaitsi dela adierazi dute udaletik. Gidari batzuk kezaka ere joan izan dira udalera semaforoak gehiegitan gorri ipintzen direla esatera. Udaletik, urte askoan gehiegizko abiadura jasan duten herritarrekiko errespetua eskatu dute.



## Aitor Bizkarra eta Gorka Pagonabarraga Bizkaiko finalean

**Erreportajea** - DURANGALDEA

> **BERTSOLARITZA.** Durangaldeko ordezkari bi Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera heldu ziren: Gorka Pagonabarraga durangarra eta Aitor Bizkarra abadiñarra. Pagonabarragaren lehenengo finala izan zen, eta Bizkarraren bigarrena. Nerea Ibarzabal eta Jone Uria bertsolariak heldu ziren buruz-burukora. Azkenean, Nerea Ibarzabalek jantzi zuen txapela. Ia 4.000 lagun elkartu ziren Bilbao Arenan abenduarren 18an Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean.



## Bizkaiko Mikeleteen markesina berrituta

**Herririk herri** - ZALDIBAR

> **ONDAREA.** Markesinak jausteko arriskua zuen eta horrexegaitik zaharberritu dute. Bizkaiko sarrerako muga guztietan, salgaien joan-etorrien gaineko zergak biltzeko eta lurralde mugakideen arteko kontrabandoaren aurka borrokatzeko lekua izan zela nabarmendu zuen udalak.



## Gregorio Vicario baldintzapean aske uzteko eskatu dute Etxerategi eta Sarek

**Herririk herri** - DURANGALDEA

> **PRESOAK.** Gregorio Vicario preso durangarra Burgosko espetxetik Leongo ospitalera eraman zuten azaroan, "bypass koronario" bat ipini eta ebakuntza egiteko. Sarek eta Etxerategi Vicarioren osasun egoeraren berri eman zuten, eta ebakuntza "ondo" joan zela azaldu zuten. Hala ere, kartzela ez dela "leku egokia" horrelako gaixotasunak artatzeko esan zuten: "Espetxe araudian araututa dago pertsona hauek espetxetik kanpo jaso

ahal dutela tratamendua, baina, zoritxarrez, euskal presoek kasuan ez da aplikatzen arau hori".

Hori horrela, Gregorio Vicario behala hirugarren gradura aldatzeko eskatu zuten, eta baldintzapeko askatasuna onartzeko. Bestalde, hainbat preso euskalerriratu dituzte: Giller Merino Basaurira, Aitzol Maortua Basaurira eta Iurdan Martitegi Martutenera. Gorka Lupiañez ere euskalerriratu dutela iragarri dute.

## Haurreskolan eta ludotekan lanak egitea, 2022ko Atxondoko proiektu nagusiak

**Udala** - ATXONDO

> **AURREKONTUAK.** Abendu hasieran, 2022ko aurrekontuak onartu zituzten Atxondon, EAJren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioagaz. Guztira, 2.309.996 euroko aurrekontua.

Datorren urteko inbertsioetan, haurreskolako eta ludotekako lanak egiteko proiektuak izango dira garrantzitsuenak. Horretarako, 110.000 euro ipiniko dituzte. Bestalde, Herri

Eskolan sukaldea ipintzea 2022ko beste proiektu nagusi bat izango da. "Eusko Jaurlaritzak eta Atxondoko Udalak emandakoaren artean, 440.000 euro inguru inbertituko ditugu eskolako ingurunea hobetzeko, eta 65.000 euroko partida bat erreserbatu dugu Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazten jarraitzeko", adierazi zuten gobernu taldeko kideek prentsa ohar baten bitartez.





# BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA  
IKASTOLA 

**ESKAINTZA:**  
0 urtetik 18 urtera bitarteko  
hezkuntza eskaintza

**HELBURUA:**  
Ikasle eleanitz, kritiko eta  
euskaldunak

**JANTOKIA:**  
Bertokoa, sasoiak eta  
produktu ekologikoak



[www.kurutziagaikastola.eus](http://www.kurutziagaikastola.eus)





[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)



**Bezerao, bere enpresako  
kudeaketa eta bere  
gogobetetzea dira  
gure helburu nagusia**

- ✓ **Aholkularitza fiskala**
- ✓ **Kontabilitate-aholkularitza**
- ✓ **Merkataritza eta finantza-aholkularitza**
- ✓ **Lan-aholkularitza**
- ✓ **Kontu-auditoretza**
- ✓ **Aholkularitza juridikoa**

**Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO**

**Tel.:946 818 636 - Faxe: 946 203 637 - [info@gualbiasesores.com](mailto:info@gualbiasesores.com)**